

hh
hik hasi

194

20 urte euskal hezkuntza ospatuz



HEZIBERRI PLANA • MAITE GOÑI • LOMCE-RI EZ

0-3 FORMAZIOA: PARTE-HARTZEA • 'GELA GORRIA': MATISSE ETA UDA

HEZKUNTZA LEGEZ ETA BIDEZ • PENTSALEKUA • KOIKILI LERTXUNDI

8-12
urte

Mundua baloi batean

Patxi Zubizarreta + Elena Odriozola

Nikolasek baloia hartu eta penaltia botatzeko prest jarri da. Indurra hartzeko atzera egiten hasi da eta poliki poliki, ohartzeko, bain atzera joan da, ezin munduari buelta emazi baitio.



Argixorgin

Estibalitz Vivanco + Joseba Larretxea

Ilarek zailtasunak ditu batzuetan zuzen uhoskatzeko, batez ere, jende aurrean irakurti behar denean, eskolan esate baterako. Horregatik, alabari lagunduko dion logopeda ha; etxera eramatea erabakiko dute gurasoek. Dena den, ilareri logopeda etxera sartzen denetik, ez zaio parte onetkoa iruditzen.

Ipurtargien herrian.

Ramon Olasagasti + Mikel Valverde

Lar karabana batean bizi da. Gauz lek uste dute xorgina dela, eta beldurrez ez dira harengana buxiltzen. Berriko haurrak, halesa, jakiri-min handia dute eta egun batean Lurrengana joango dira.



aurkibidea



8
gaia

HEZIBERRI PLANA, LOMCE-REN ITZALPEAN

2013-2014 ikasturte hasieran jarri zuen martxan Eusko Jaurlaritzak Heziberri 2020 egitasmoa, euskal curriculuma garatzeko eta hezkuntza lege berri baterako pausoak emateko xedez. Plana adostasun zabalarekin abiatu bazen ere, joan den urrian eragileei helarazitako curriculum dekretuen zirriborroek kritika gogorrak jaso dituzte eta desadostasuna eragin dute.



16
elkarrizketa

MAITE GOÑI

Hezkuntza bizi ditugun garaietara egokitu behar dela sinetsirik, eredu memoristikoen aurrean bestelako helburu pedagogiko-didaktikoak lortzeko eta kolaborazioa bermatzeko etekina ateratzen die teknologia berriei Ordiziako Jakintza Ikastolako eta Mondragon Unibertsitateko irakasleak.

5 editoriala

6 hizpide izan da

8 hizpide izango da

10 gaia

HEZIBERRI, hezkuntza-eredu propioa eraiki ezinean

18 elkarrizketa

MAITE GOÑI, irakaslea eta IKTetan aditua

26 LOMCEri ez! EHn gure hezkuntza eraiki!

29 0-3 zikloko hezitzaileen formazioa: parte-hartzea Reggio Emilian

32 esperientzia

'Gela gorria': Matisse eta uda

35 ekarpena

Ikastolen adierazpena: hezkuntza, legez eta bidez

38 galdeidazue

Pentsalekua zertarako? Karmele Artetxe eta Elena Herran

40 hik hasi-ren proposamena

'Itsaspeko bihotzak' haur literatura eta hezkidetzaren aretoa

42 Atzeko atetik

Koikili Lertxundi, futbolaria

Argitaratzailea: **XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPIZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.eus;
Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.eus; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ainhoa Azpiroz, Ainara Gorostizu eta Arantzazu Muñoa.
Erredakzio batzordea: Nerea Agirre, Izarne Garmendia, Miren Guilló, Iñigo Larrañaga, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Arantxa Urbe. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Alex Barandiaran, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Lore Erriondo, Guillermo Etxeberria, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Fito Rodriguez eta Matilde Sainz. Administrazioa: Uxue Ugartemendia. Diseinua: Graffik.
Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsia (2014-12-18). Kopurua: 3.600 ale.

hik hasiko artikuluez edonon eta edonoiz balia zaitzake. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.



IRRIEN LAGUNAK KLUBA

I. BIDEO LEHIAKETA

Albaola Itsas Faktoriaren laguntzaz



Hiru modalitate egongo dira, familiara, lagun-taldeena eta ikastetxeetako gelakideena.

Gaia: **ITSASOA**

Lanak entregatzeko epea: URTARRILAREN 15ETIK OTSAILAREN 15ERA ARTE.

Bideoa egiteko, talde guztiek euskal abesti bat hartu beharko duzue oinarr eta "Txo Mikmak txikia" diskoaren "Albaola" abestia aukeratzen duzuenok, aurkezten zareten ataleko sariaz gain, ALBAOLA ITSAS FAKTORIAren sari berezia irabaz dezakezue.


Sari potoloak ditugu! Hasi lanean eta bidali zuen bideoak!



ITSAS
KULTUR
FAKTORIA



HEGOKI



EROSKI bidaiak

Anatsetan? Ezizu logar!

editoriala

urtarrila

Gure esku dago



Bada adostasuna, bada ekimena, bada bidea, bada esperientzia. Gure esku dago. Borondatea behar da: hasi etxetik eta kalera; kaletik erakunde gertuko eta gorenekoetara.

Urte zaharraren amaieran gauza txarrak surtara botatzeko garaia izaten da, eta berriaren hasiera, nahikari eta gurariak eskatzekoa. 2014ari begira jarrita, euskal hezkuntzak badu surtarako gairik: murrizketak, LOMCE, *Falloux legea* dela-eta Hendaia eta Beskoitzeko ikastolen aurkako erasoak; Nafarroan Euskal Herria aipatzearen aitzakian Euskara eta Literatura ikasgaiko 22 liburu erretiratzeko sorgin-ehiza; Ziburuko ikastolaren aurkako erasoak; Iruñeko haur-eskoletan euskaraz matrikulatzeko ezintasunak, etabar.

Ezaren gudaz baietza sortuz, kontraren kontra bide asko urratutakoa da Euskal Herria, euskal hezkuntza propioaren aldeko urrats asko eginga. Gatazkak eta krisiak sormenerako, herri-gintzarako eta eraikuntzarako akuilu izan ditu herri honek. Eta 2014an surtara botatutakoak 2015a berotzeko erregai izango dira, beste behin.

Aldarrikapenetik festa egin dugu, bada, pasa den 2014 honetan ere, Zangozan, Argantzunen edo Senpereko la-

kuan, kasu. Izan da adostasunik, LOMCErekiko kontrakotasunak eragile asko batu ditu Hezkuntza Plataformen Topagunean, kalean, manifestazioetan... proposamen eraikitzaileak egin dira ildo beretik ELA, LAB, EILAS, Sortzen Ikasbatuaz, Ikasle Abertzaleak, UEU, Ikastolen Elkarteak eta Hik Hasik, arlo pedagogiko eta juridikoan aditu direnen laguntzaz eginiko Gure GIDA proposamen sorta kasu, adostasun eta ekimen horren erakusle. Arlo pedagogikoan, zabala izan da adostasuna, halaber, Araba, Bizkai eta Gipuzkoarako curriculuma izan nahi duen Heziberri 2020 planaren baitako Hezkuntza Pedagogikoaren Markoa garatzeko unean ere, LOMCeren aurka zihoalako batetik, baina nagusiki gaitasun edo konpetentzien arloan sakontzen zuelako...

Euskal hezkuntzarekin konprometitua gauden irakasle, langile, guraso, sindikatu eta eragileok badakigu zer behar dugun: haurra, nerabea, pertsona bere osotasunean zainduko duen kalitatezko euskal hezkuntza-sistema

propioa, gizarte konplexu honi erantzungo dion gizakia hezten lagunduko duen eskola horizontala; aniztasuna eta konplexutasuna bizitzen jakingo dituen, desberdinkeria eta informazio uholdeak kudeatzen jakingo dituen biharko eta gaurko herritarrak sortzen lagunduko duen eskola euskalduna, irekia eta inklusiboa. Bada adostasuna, bada ekimena, bada bidea, bada esperientzia. Gure esku dago. Borondatea behar da: hasi etxetik eta kalera; kaletik erakunde gertuko eta gorenekoetara.

Etorriko da kontrako haizea, eza, guda. Erreformak, Falloux ez bada beste lege bat, testu-liburuak ez badira, beste erasoak... baina nork bere gelatik, eta ondokoarekin; nork bere ikastetxetik, herritik egin dezagun urratsa 2015 honetan, har dezagun bidea, gure esku dago-eta.

Eta eskuz esku, urratsik urrats, hezkuntza akordio zabal bat erdiestera bultzatu arte dagokiona, kalitatezko eskola euskalduna ekinez egiteko urtea izan dadila hasi berri duguna.

hizpide

Haur-eskoletako kuotak berriro aztertze eskatu dute sindikatuek

Haurreskolak partzuergoko kuoten sistema berriro aztertze eskatu dute LAB eta EILAS sindikatuek. Langileen aspaldiko eskakizuna da, baina indar handiagoa hartu du orain, sindikatuek ikusi baitute partzuergoaren aurrekontuetan % 7,4ko jaitsiera dagoela, eta horrek asko zailtzen duela kuoten sisteman aldaketak egitea. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan 230 haur-eskola inguru ditu partzuergoak, eta horietan hiru urte arteko 8.000 bat umerentzako lekua eskaintzen dute. Hala ere, azken urteotan leku horiek ez dira bete, eta batez beste, 5.000 haur ingururi eskaintzen diete zerbitzua. Sindikatuek susmoa dute horretan zerikusi handia duela kuota-sistema ezarri izanak. Umeei bost orduko zerbitzua eskaintzearen truke 165 euroko kuota ordaindu behar dute gurasoek hilean, eta zortzi orduko zerbitzuagatik, berriz, 210 euro. Sindikatuek eskatzen dute kuota horiek ez igotzeko, eta ordutegietan tarteko zerbitzu bat eskaintzeko.



Ziburuko ikastolari eguneko isuna ez igotzea deliberatu du epaileak

Ziburuko Kaskarotenea ikastolak Marinela auzoko eraikinean egiten duen egun bakoitzeko zigorra 100 eurotik 400era handitzea galdegin zuen Guy Poulou auzapezak, baina eskaria baztertu du epaileak. Pozik daude ikastolako kideak, nahiz eta ebazpena “garaipentzat” ez hartu. “Pozik gara, isuna ez baita pasatzen 100 eurotik 400era, baina, hala ere, 100 euro pagatzen segitzen dugu”, adierazi du Laida Mugika Kaskaroteneko lehendakariak.

Fundazio pribatu bateko irakasle laguntzaileak ariko dira EAEko lau eskola publikotan

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak 240.000 euro emango dizkio datorren urtean Hamaika Esku programaren barneko Eskolan Ekiten proiektuari. Ikasleen arteko emaitzen desorekak eta eskola-porrota gainditzea helburu, proiektu “berritzaile” bat abiaraziko dute, proba gisa. Horretarako, Empieza por Educar fundazio pribatua hartu dute, Patricia Botin Santander bankuko presidentea buru duena. Hark kontratatutako zortzi irakasleak lau ikastetxetako ikasleei lagunduko diete. Sindikatuek eta oposizioko alderdiek gogor kritikatu dute Hezkuntza Sailaren erabakia. Sindikatuek salatu dute fundazioa “ultraliberala” dela, eta irakasleak irizpide ideologiko jakinen arabera hautatzen dituela. EH Bilduko Belen Arrondok kritika egin du beste “pribatizazio” saialdi bat izango dela argudiatuz: “Hau ez da bidea. Eskatzen dugu proiektu hori bertan behera utzi eta diru hori beste bide batzuk erabiltzeko inbertitzea”.

Cristina Uriarte Hezkuntza sailburuak azaldu duenez, Teach For All sarearen barnean dago fundazioa, eta antzeko proiektuak egin izan dira munduko beste hainbat tokitan ere, hala nola, Txilen, AEBetan, Erresuma Batuan eta Estonian. Emaitza onak atera ditu leku horietan, eta nazioarteko emaitzak EAera ekarri nahi dituzte.

izan da

LOMCE “erabat” gaitzetsi du Euskadiko Eskola Kontseiluak



Euskadiko Eskola Kontseiluak *Hezkuntza Euskadin 2012-13* urteroko txostena plazaratu du, eta Araba, Bizkai eta Gipuzkoako hezkuntza-sistemaren egoera aztertu eta zenbait aholku, proposamen eta eskaera egiteaz gain, LOMCE legearen inguruko aipamen bat ere egin du. Legea “erabat” gaitzesteaz aparte, “legearen ezarpena EAEko hezkuntza-sisteman azken hamarkadetan izan den aurrerapenerako eragozpen handia” izango litzatekeela uste du.

Hainbat kezka agertu ditu Euskadiko Eskola Kontseiluak txostenean. Esaterako, ikasleen jatorri sozio-ekonomiko eta kulturalen arteko alde “gero eta handiagoa” dela bi hezkuntza sareetan, eta sare bakoitzeko ikas

ereduen artean. Ikasle etorkinen eskolatzeko prozesuari ere arreta berezia jartzeko eskatu du, gainerakoek baino emaitza kaskarragoak izaten dituztela ikusita.

Euskara ere bada kezka iturri. Zenbait ikerketak frogatu dute ikasle kopuru handi bat dagoela —Lehen Hezkuntzako 4. maila % 31, eta DBHko 2. mailan % 38— euskarazko hizkuntza komunikaziorako konpetentzian emaitza kaskarrak dituena.

Finantziazioari dagokionez, “hezkuntzako inbertsioa hobetzeko ahalginak egin beharraz” ohartarazten dute. Adierazi dutenez, 2009-2012 aldian ikastetxe publikoetako gastua % 12,4 jaitsi da; ikastetxe pribatuetakoa, berriz, % 0,1.



Euskarak Nafarroan dituen harresiak botatzearen alde manifestazioa egin dute Tafallan

Euskararen Legearen 28. urteurrena tarteko, abenduaren 14an, ehunka lagunek euskararen ofizialtasuna aldarrikatu zuten Tafallan, *Berlingo Harresia nola, Vascuencearen Legea hala!* lemapean.

“Euskaraz Bizi eta Ikasi” plataformak antolatu zuen protesta, baina beste hainbat alderdi, elkarte eta kolektibo ere bertan izan ziren, besteak beste, Geroa Bai, Bildu, Sotzen Elkarte, Euskal Herria Euskaraz eta STEE-EILAS sindikatua.

Antolatzaileek positiboki baloratu dituzte Nafarroako Euskararen Legean proposatutako aldaketak eta uste dute “erretan” bat ireki dela Euskararen Legearen baitan.

hizpide



Matrikulazio-kanpaina aurreratu du NIZEk 'Eskola ereDugarria' lemapean

NIZE Nafarroako Ikastetxeetako Zuzendaritzakideen Elkarteak otsailean espero du zabaltzea hurrengo ikasturterako aurrematrikulazioa egiteko epea. Nafarroako Gobernuak ez du data zehaztu, oraindik, baina D ereduaren aldeko mezua zabaldu nahi izan du jada NIZEk: irribarre bat irudikatzen duen D hizkia hautatu du bere marka gisa; *Eskola ereDugarria* esaldia da, berriz, leloa.

Gurasoak dagoeneko informazioa eskatzen hasi direnez, kanpaina abiatzea erabaki dute. NIZEko kide lone Urrutiaren esanetan, "konfiantzazko eredia da gurea; hurbila eta kalitatezkoa; behar dituzten gaitasunen jabe dira gure ikasleak; eskola irekia eta publikoa da euskarazkoa". Gainera, Urrutiak adierazi bezala, D eredia sendotuz eta haziz doa. Gaur egun, 11.500 ikasle inguru ari dira D erudian Nafarroan; eta haiekin 1.100 irakasle baino gehiago ari dira lanean.

Egiten duten lanaren berri emateko, bi bideo labur prestatu ditu NIZEk, D ereduaren alde. Euren hiru ezaugarri nagusiak azaldu nahi izan dituzte lan horien bidez: "hurbilekoak garela; gure ikasleek hiru hizkuntzatan aritzeko gaitasuna dutela; eta hizkuntzen esparruan inork baino esperientzia handiagoa dugula, murgiltze eredia gurean sortu eta hazi baita".

Euskarazko hedabideei ematen zaizkien diru- laguntzak ez murrizteko eskatu du Hekimenek

Euskal hedabideen elkarte Hekimenen batutako komunikabideek uste dute beste "norabide" bat hartu behar luketeela Eusko Jaurlaritzak euskarazko hedabideei ematen dizkien diru-laguntzek. Eusko Legebiltzarrean 2015-erako aurrekontuaren eztabaidan, eskaera zehatza egin diete talde politikoei: 2008ko egoerara itzuli nahi dute, "murrizketak hasi aurreko egoerara bueltatzeko". Eta dirutan ere neurtu dute norabide aldaketa horrek ekarri beharko lukeena. "Milioi bat euroko diru-laguntza beharko lukete hedabideek".

Oroitarazi dute euskararentzako aurrekontuek eta, ondorioz, hedabideen finantzabide publikoak beheranzko joera hartu dutela azken urteotan — 2008an hasi eta 2010etik 2012ra, bereziki — eta ezin dela bide horretan jarraitu. "Euskal hedabideek ezin dute murrizketa gehiago jasan", ohartarazi dute, eta adierazi urratsak egin behar direla hori saihesteko.



izango da

Martxoan bigarren ez erakutsiko da Bartzelonako El Martinet ikastetxearen gaineko dokumentala



Abenduaren 11ko arrakasta ikusirik, Bartzelonako Ripollet herriko El Martinet eskolaren gaineko bideoa berriro erakutsiko da martxoaren 5ean. Bi saio emango dira Iruñean dagoen Na-

farroako filmotekan, arratsaldeko 18:00etan bata, eta 20:30ean bestea. Sarrerak salgai daude dagoeneko Nafarroako filmotekaren webgunean: www.filmotecanavarra.com

.eus domeinua eskuratu du Hik Hasik

Abenduaren hasieraz geroztik Hik Hasi ere .eus da eta www.hikhasi.eus webgunea martxan da dagoeneko. Abiarazte aldian 1.292 domeinu izen erregistratu dira eta horietako bat da Hik Hasirena.

Bigarren Hezkuntzako irakasleentzako deia

Hik Hasik gutxi landu duen esparrua izan da Bigarren Hezkuntza. Orain arte, ez gara gai izan ziklo horretan diharduten profesionalengana iristeko, eta landu beharreko esparrua dela iruditzen zaigu. Horregatik, Bigarren Hezkuntzako errealitatea ezagutu nahi dugu alor hori jorratzen duten irakasleen eskutik. Nerabezaroak duen garrantzia kontuan hartuta, hezkuntza hausnarke-ta egin nahiko genuke, eta, esparru horretan dabiltzan profesionalen parte-hartzea beharrezko litzateke.



BILERA eguna, urtarrilaren 22an, arratsaldeko 6:00etan, Donostian.

Bilera ongi antolatzen laguntzeko, izena eman ezazu www.hikhasi.com helbidean fitxa beteta. Bestela, hikhasi@hikhasi.com postan eskaera egin. Izena emateko azken eguna, urtarrilaren 16a.

**Obarra: Interesa baldin baduzu, baina parte-hartzerik ez baduzu, fitxa bete ezazu hori adieraziz eta bileran hitz egindakoaren akta bidaliko zaizu posta elektronikoaren bidez.*

GAIA

Heziberri plana

LOMCEren itzalpean





2013-2014 ikasturte hasieran jarri zuen martxan Eusko Jaurlaritzak Heziberri 2020 egitasmoa hainbat hezkuntza-eragilerekin elkarlanean, euskal curriculuma garatzeko eta hezkuntza-lege berri baterako pausoak emateko xedez. Hiru urrats zehaztu zituzten bide hori egiteko: hezkuntza eredu pedagogikoaren marko propioa, euskal curriculumaren dekretua eta Euskal Hezkuntza Legea. Marko pedagogikoa hainbat hezkuntza-eragilerekin elkarlanean eta adostasunean taxutu bazuten ere, ez da gauza bera gertatu curriculum dekretuen zirriborroekin. Kritika gogorak jaso dituzte hezkuntzako alor ia guztietatik, eta hainbat zuzenketa helarazi dizkiote eragileek Hezkuntza Sailari. Jaurlaritzaren hasierako asmoa 2015eko urte hasieran dekretuak adostea eta 2015-2016 ikasturte hasieran curriculum berria martxan jartzea zen, baina ikusteko dago zer gertatuko den.

G

Hezkuntza-eredu propioa eraiki ezinean

Urtebete baino gehiago igaro da Eusko Jaurlaritzak Heziberri 2020 egitasmoa martxan jarri zuenetik. Hainbat hezkuntza-eragilerekin elkarlanean, euskal curriculuma garatzea eta hezkuntza-lege berri baterako pausoak ematea zuen helburu. Hiru urrats zehaztu zituen bide hori egiteko: hezkuntza-eredu pedagogikoaren marko propioa (2015eko otsailean adostu zen behin betiko txostena), euskal curriculumaren dekretua (oraindik zirriborroa soilik dago prest eta dagoeneko hezkuntza-eragileek zuzenketa eta ekarpenak egin dizkiote) eta Euskal Hezkuntza Legea (bidea urratzen hasi gabe dago, teoriarik lehena curriculum litizateke eta horrek posible egingo luke Hezkuntza Lege propioa).

Heziberriren Marko Pedagogikoa ontzeko talde mugatua osatu zuen Cristina Uriarte Hezkuntza sailburuak. Hauexek osatzen zuten partaideen taldea: Ikastolen Elkarteak, Kristau Eskola, Sortzen Ikasbatuaz, Sarean, EHUko irakasle fakultatea, Ikasgiltza, Eusko Ikastola Batza, Erkide, EHIGE, BIHE, Irakaskuntza Zentroen Elkarte Autonomoa eta Bizkaiko Elizbarrutiko Ikastetxeak. Sindikaturik eta ikasle talderik ez zegoen partaideen artean, ezta Hik Hasi ere.

2013ko urriaren 9an, Espainiako Kongresuak hezkuntza-erreformarako Wert legea onartu bezperan egin zuen bilera nagusietako bat taldeak. 2013ko irailaren 18an Jaurlaritzak eginiko proposamena zehazteko bilera izan zen. Txosten osatuagoa eraman zuen gobernuak eta onartu egin zuten eragileek. Heziberri Wert legeari aurre egiteko tresna gisa aurkeztu zen orduan. Hasiara hartan hiru oinarriekin hasi ziren lanean: eragileek adostu eta garatutako euskal curriculum, gobernu programa eta 2020erako asmoak zehazten dituen Europako Batasunaren Gidalerroak.

Oinarri horien gainean ekin zioten marko pedagogikoa osatzeko bideari. Hezkuntza-eredu pedagogikoaren markoa zehazten duen txostenaren sarrean ageri denez, Heziberri 2020 planaren helburua argia zen: “Europako esparruan hezkuntzaren eta prestakuntzaren arloan 2020rako ezarritako berrikuntza-eta garapen-ildo estrategikoak bateratzea hezkuntzak gure tesuinguruan eta ingurunean dituen erronkekin, etorkizuneko belaunaldiak ongi prestatu egon daitezela Euskal Herrian eta munduan bizitzeko”.

Pertsona guztien hezkuntza-esku-bideaz, ekitateaz eta justizia sozialaz hitz egiten da bertan, baita inklusioaz edota ikaskuntza pertsonalizatuaz ere. Finean, ikasleak bizitzarako prestatzea litzateke eskolaren egitekoa, “ikasleak beren erabakiez ardura daitezela eta modu aktibo, kritikiko eta arduratsuan parte hartu dezaten gizartean”. Hala, oinarriko konpetentziak bizitzarako beharrezkotzat eta ezinbestekotzat jotzen ditu. Era berean, herritar eleaniztunetz mintzo da, baina zehazten du sistema eleaniztunaren ardatza euskara izango dela. Konpetentzia digital eta mediatiakoari ere garrantzia berezia ematen dio eta zentroen autonomia defendatzen du. Azkenik, hezkuntza komunitateko kide guztien kultura pedagogiko berbera bermatzeko, “mugarri garrantzitsu” izatea aitortzen die euskal curriculum proiektuari eta Euskal Herrirako curriculumari.

Idea horiekin bat egiten dute hezkuntzako hainbat eragilek. Esate baterako, Kristau Eskolako zuzendari Mikel Ormazabalena arabera, Heziberri konpetentzietan oinarritutako hezkuntzaren alde egiten du eta horretan bat dator egitasmoarekin, “konpetentzietan hezten diren ikasleak prestatuta baitaude gizartean euren eginkizuna betetzeko eta gizartearen hobekuntza konpro-

Heziberri plana

misoa hartzeko”. Heziberri Kristau Eskolaren filosofiarekin bat egiten duten beste helburu batzuk ere proposatzen ditu; hala nola, euskal gizartearekiko ardura, hizkuntzen trataera, batez ere, euskararena, eta ikastetxeen autonomia.

Ikastolen Elkartea ere ados dago oinarri nagusiekin. Markoaren asmo edo printzipio nagusiak (euskara ardatz duen eleaniztasuna, hizkuntzen trataera, ebaluazioaren planteamendua eta edukia, konpetentzia digitalak txertatzea...) begi onez ikusten ditu, nahiz eta aitortzen duen marko pedagogiko bateko irizpideak gelako praktikara eramateko curriculumak zehaztea ez dela egiteko samurra. Ildo berean, sindikatu abertzaleek ere formulazio pedagogikoari dagokionez, hezkuntza beste parametro batzuetan ulertu eta garatzeko saiakera egin izana aitortzen diote Heziberrii; sindikatuak eurak markoa taxutzeko zereginetik kanpo geratu baziren ere.

Balorazio horiek gora-behera, adostasun nahikoa lortu zuen marko pedagogikoak eta 2014eko otsailean aurkeztu zen publikoki. Hala ere, hasieratik izan da ika-mika Heziberri planaren inguruan. Izan ere, sindikatuek lehen fasean haiek aintzatez hartzea salatu zuten: “Oso larria da hain garrantzitsuak diren egitasmoen berri komunikabideen bidez jakitea”, ELAren esanetan; EILASEk berriz behin baino gehiagotan ohartarazi du langileen ordezkariek baztertuta “oinarrizko atal bati” bizkar eman diola gobernuak. Eusko Legebiltzarrean ere babesik apenas izan duen egitasmoak. Planaren sorburutik alde batean posizionatu ziren PSE-EE, PP eta UPD: ez zuten beharrezko ikusten plana, eta salatu zuten “ikasleak doktrinatzeko” dela asmoa, *Euskal He-*

ria kontzeptua ageri delako. Beste aldean zegoen EH Bildu: planaren izaera ez zuen kritikatu, baina adierazi zuen motz geratzen dela, ez duelako balio LOMCeri aurre egiteko. Hasieran, Wert legeari planto egiteko egitasmo gisa definitu bazuen ere Eusko Jaurlaritzak Heziberri, geroztik EAJk behin eta berriz esan du legearen barruan arituko dela, eta Heziberri plana ez dela LOMCeren aurkakoa, baizik eta “bide paraleloa” egitekoa. EAJren gobernuak eragileak mahai beraren bueltan biltzea lortu zuen arren, legebiltzarrean bakarrik dago hasieratik.

Testuinguru horretan, hainbat eragileekin hezkuntza-eredu pedagogikoaren markoa definitu ostean, baina sindikatuak eta oposizioko alderdiak aurka zituela, curriculum berritzeko zereginari heldu zion Jaurlaritzak 2013-2014ko ikasturte amaieran. Hasiera batean bazirudien euskal curriculumak eta curriculum berriak izpiritu antzekoa zutela. Oinarri pedagogikoak aztertuta, bietan garrantzi berezia ematen zaio ikasleek oinarrizko konpetentziak garatzeari, baita irteerako profila zehazteari ere —eskola garaia bukatzean zer maila izan behar duten ikasleek—.

Euskal curriculumaz gain, hala ere, beste iturburu batzuk ere baditu Heziberri planak: Jaurlaritzaren gobernu programa eta Europako Batasunak 2020rako zehaztutako helburuak. Hor baitu alde handienetako bat: Heziberri gobernuaren proiektua da; Euskal Curriculumak Ikastolen Elkartearen, Udalbiltzarren eta Sortzen Ikasbatuaz-en ekimenez hasi zen.

Curriculum dekretuak zintzilik

Hezkuntzako eragile gehienak bi delagun zituela abiatu zuen Hezkuntza Sailak Heziberri egitasmoa. Oinarri pe-

dagogikoak adostu zituzten —garrantzi berezia emanez oinarrizko gaitasunak garatzeari, LOMCEk ez bezala—, eta horren ondotik curriculum dekretuak egiteari ekin zion Jaurlaritzak.

Iragarritako pausoei jarraituz, urriaren 27an aurkeztu zituen curriculum dekretu berrien zirriborroak, urte amaiera baino lehen onartzeko xedez, eta 2015eko urte hasieran publikoki aurkezteko asmoarekin. Zortzi dokumentu helarazi zizkien hezkuntza-eragileei: Oinarrizko Hezkuntzaren Dekretua euskaraz eta gaztelaniaz; Curriculumaren Planteamendu Orokorra gaztelaniaz; Haur Hezkuntzari, Lehen Hezkuntzari eta Bigarren Hezkuntzari dagokion eranskin bana (Batxilergoari dagokionik ez), horiek ere gaztelaniaz; eta Ebaluatze eta Hobetzeko Proposamenen Gida euskaraz eta gaztelaniaz. Orotara ia mila orri. Hilabete epea eman zien eragileei zuzenketak eta ekarpenak egiteko; gero abenduaren 9ra arte luzatu zuen epe hori.

Dekretuen zirriborroak gaztelaniaz jaso izana bera ez dute egoki ikusi zenbait eragilek. “Proposamena bera gaztelaniaz sortu izanak kezka handia sortzen digu”, zioen Sortzen Elkarteako Bego Bitorika Badiolak abenduaren 9an egunkarietan argitaratutako iritzi artikuluan. Ildo berean mintzo da LAB sindikatuko Aitziber Perez ere. Haren esanetan, hizkuntzak ikusmolde jakin bat gordetzen du bere baitan, eta ondorioz, “testu bat gaztelaniaz edo euskaraz sortzea ez da afera tekniko hutsa”.

Curriculum dekretuen zirriborroak eragileen eskuetara iritsi direnetik Heziberri planaren bideak hasieran zirudien bezain samurra izateari utzi dio. Ataka estua du orain aurrean. Izan ere, curriculum dekretuen zirriborroek ezin negona eta kritika oldea eragin dute

hezkuntza-eragileen artean. Gehienak ez datoz bat zirriborroekin eta sakoneko aldaketak eskatu dituzte. Ekarpenak egiteko epea amaituta, ikusteke dago zein jarrera hartzen duen Jaurlaritzak.

Urte luzeko bidearen ostean iritsi dira curriculum dekretuen zirriborroak —Heziberri proiektuaren bigarren pausoa—. Badirudi curriculum dekretuetan, nolabait erdibideko hautua egin dela. Alegia, LOMCEren oinarria errespetatzea dekretuetan —oinarrizko curriculum indarrean jarria du jadanik Espainiako Gobernuak— eta “euskal dimentsio” hori txertatzea Euskal Herriko edukiekin.

LOMCE bezalaxe, Heziberriko curriculum zirriborroaren arabera ere, DBHko etapa ikasgaitan dago antolatuta eta bi ziklok osatzen dute, hiru ikasturtekoa lehenengoa eta ikasturte batekoa bigarrena. Sindikatuek ohartarazi bezala, bigarren zikloan, gainera, Lanbide Heziketara edota Batxilergora bideratutako ikasketak egingo dituzte, eta beraz, bi eratako tituluak lortuko dituzte. Horrekin, ikasleen espezializazioa azkartu egingo dela diote. Bestetik, LOMCEren antzera, Heziberri ere zehazten da ikas-etapa bakoitzaren amaieran azterketak egingo dituztela. Hala dio esaterako oinarritzko hezkuntza curriculumaren zirriborroak, “Ikasleen ebaluazioa, sustapena eta titulazioa” atalaren baitako 54. artikuluko 1. puntuak: “Laugarren ikasturtea amaitzean, hezkuntza akademikoaren aukera zein hezkuntza aplikatuaren aukera hautatzen duten ikasleek banan-banako ebaluazioa egingo dute. Horren bidez jarraian aipatzen diren ikasgaiei lotuta, etapako helburuak eta kasuan kasuko konpetentzien eskuratzemaila, gutxienez, lortu dituztela egiaz-

tatuko da”. Beste horrenbeste gertatzen da erlijio katolikoaren irakasgaiarekin ere, LOMCEn ageri den moduan, Erlijio Katolikoa Lehen Hezkuntzako arloetako bat izango da, ikasgaia, berriz, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan. Nahitaez eskaini beharko dute ikastetxeek eta hautazkoa izango da ikasleentzat. Hala dio curriculum dekretuaren zirriborroak: “Erlijio katolikoaren irakaskuntza Egoitza Santuaren eta Estatu espainolaren artean izenpetutako irakaskuntzari eta Kultura Gaiei buruzko Akordioan ezarritakora egokituko da”.

Horiek horrela izanik, curriculum dekretuen zirriborroak aurrera aterako balira, LOMCE beteko luke Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako hezkuntza-sistemak. Madrilek zehaztutako edukiak txertatuko lirake, eta amaierako azterketak egin beharko lituzkete ikasleek —Espainiako Gobernuak jarriko lituzke, eta berberak izango lirake “lurralde nazional” osoan, LOMCEren edukiak ematen dituztela ziurtatzeko. Argi esana du Madrilek: hark jarritako edukiak derrigor eman behar dira; hortik aurrera, erkidegoek gehiago sar ditzakete.

Hori hala, Euskal Herriko edukiek zein toki hartuko dute? Gaitegian sartuko dituzte, baina bukaerako probetan ez dira azalduko, Espainiak ez baititu sartuko. Uriartek ohartarazia du zehaztuegia dela Madrilen dekretua, eta tarte gutxi dagoela osatzeko. Hortaz, euskal edukien aurrean, lehentasuna LOMCEren edukiek hartuko ote dute? Ikastetxeen eguneroko jardunak erakutsiko du hori. LOMCEk zehazten dituen edukiak asko direla kontuan izanik, modurik egongo ote da bi errealitateak (bertakoa eta Espainiatik datorrena) jorratzeko? Ildo berean, LOMCEk

ezartzen dituen ebaluazioak gainditzeko jakin beharreko edukiak irakasteak tarterik utziko al du euskal edukiak lantzeko?

Hezkuntza Sailaren erantzunaren zain

Marko pedagogikoa hainbat hezkuntza-eragilerekin elkarlanean eta adostasunean taxutu bazuen ere Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, ez da gauza bera gertatu curriculum dekretuaren zirriborroarekin. Kritika gogorak jaso ditu hezkuntzako alor ia guztietatik. Ikastolen Elkarteak, sindikatu guztiak, oposizioko alderdiak nahiz bestelako guraso, ikasle eta irakasle elkarteak kontra ditu Jaurlaritzak.

Hezkuntza-eragileek salatu duteenez, planaren lehen fasean adostutako marko pedagogikoa “diluitu” egiten da curriculum zirriborroan, eta funtsean, LOMCEren aplikazioa dakar, lege horren irizpide asko zehatz-mehatz ageri baitira Heziberri. Ondorioz, euskararen eta euskal kulturaren dimentsioa garatzeko ere hutsune nabarmenak dituela kritikatu dute, eta zenbait zuzenketa eta ekarpen helarazi dizkiote Hezkuntza Sailari.

Hezkuntza arloko eragileen erantzun horren aurrean ikusteke dago Eusko Jaurlaritzak nolako jarrera hartzen duen. Cristina Uriarte buru duen Hezkuntza Sailak abenduaren 12an *bikbasiri* adierazi dionez, behin betiko curriculum dekretua adostu eta itxi arte ez du egoeraren baloraziorik egingo. Lehen asmoa, baina, 2014a amaitu aurretik curriculum dekretua ixtea zen, eta 2015eko hasieran jendaurrean aurkezte, EAEko Euskal Curriculum 2015-2016 ikasturtean abiatu ahal izateko. Ikusteko dago beraz, Heziberri 2020 planak nolako bilakaera izango duen.

Hezkuntza-eragileak kexu

Heziberri proiektuaren curriculum dekretuaren gaineko eztabaida, nagusiki, hiru hankaren gainean egin da: curriculum, hizkuntza-ereduak eta finantzaketa. Erakunde bakoitzak era bateko zein besteko arrazoiak badarabiltza ere Heziberri kritikatzeko, gauza batean ados daude guztiak: Heziberriek euskal ikastetxeetan LOMCE ezartzeko bidea irekitzen duela salatzen dute, eta horrek euskal hezkuntza propioa gartzeta eragotziko lukeela. Hizkuntza-irizpideei dagokienez, hezkuntza-munduko eragileen esanetan, eleaniztasunaz hitz egitea ez da nahikoa benetakako elebitasuna bermatzeko eta modu ekitatiboan hirueko ereduari aurrera egiteko. Gaur egungo hizkuntza-ereduen sistema gaindituko duen trataera integralago bat eskatzen dute, DBH amaitzean ikasleek hiru hizkuntzetan zein helburu bete behar dituzten zehatz markatuko duena. Azkenik, finantziarioaren gaia dago. Sare publikoak errezelo handiarekin begiratzen die curriculumari, eta Hezkuntza Lege propioari. Ikastetxe kontzertatuetako ardura-dunek, bestalde, hezkuntza-zerbitzu guztien publikotasuna bermatu nahi dute Hezkuntza Legearekin.

Dekretuak dauden bezala ezin dira onartu eta aukera galdu baten aurrean egon gaitezkeela dio hitzez hitz Ikastolen Elkartek, “esku artean duguna nagusiki LOMCEren aplikazioa baita”. Aitortzen du, ordea, zirriborro bat besterik ez dela, eta beraz, hobetu daitezkeela, nahiz eta “berrikusketa eta berriidazketa sakonak” behar izan.

Ikastolen Elkartek bat egin zuen Heziberri planaren marko pedagogi-

koarekin, baina haien esanetan, marko pedagogikotik dekreturako urratsean ez da lortu behar bezalako eraginkortasun eta loturarik. Zentzu horretan ebaluazioaren atalari aipamena egiten dio, “hutsune berezia” nabarmentzen duela esanaz. Izan ere, eranskinetan definitutako ebaluaziorako irizpideak eta lorpen-adierazleak lotuta daude edukien ebaluazioarekin, hau da, ikasleek jokabide kompetentea erakusteko eskuratu behar dituzten adierazpenezko, prozedurazko eta jarrerazko edukiekin: “Ebaluazio mota hori beharrezkoa da, baina ez da nahikoa, kompetentziaren ebaluaziorako irizpideak eta lorpen-adierazleak ere gehitu behar zaizkio”. Iritzi berekoa da LAB sindikatua ere: “Hutsune nabaria dago ebaluaziora dagokionez eta kompetentziekin erabat lotuta. Formulazio pedagogiko gisa egokia izan daiteke, baina horiek nola ebaluatuko dituzte? Ez dago batere argi”.

Euskararen eta euskal kulturaren dimentsio espezifikoari buruz ere berebiziko kezka agertu du Ikastolen Elkartek, curriculumaren zirriborroan ez baitago “Euskal Dimentsioa Gauzatzeko berriazko garapenik, hots, LOMCE garatzera datorren Errege Dekretuan agertzen diren edukien aukera bera egin du Eusko Jaurlaritzak, amaieran Euskal Herrian erantsiz”. Hizkuntzen atalari dagokionez berriz, Ikastolen Elkartek uste du beharrezkoa dela Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Markoa aipatzea, “ezinbesteko erreferentzia baita hezkuntza eragileen eta Hezkuntza Sailaren azken urteetako hainbat hizkuntza-planteamendutan”.

Arrazoi horien gainetik dekretu zirriborroaren egungo formulaziotik urrun sentitzen dira ikastolak, eta harekiko zituzten itxaropenak ez dira momentuz beste: “Azken finean LOMCEtik urrun egongo diren eta hezkuntza-sistema propioa eta berritzaile bat eraikitzeke baliagarri izango diren curriculum dekretuak ari gara eskatzen”.

Antzeko iritzia dute sindikatuek Heziberri LOMCErekin duen tankerari buruz. Haien esanetan, Heziberri 2020ren curriculum dekretu zirriborroek argi uzten dute “Eusko Jaurlaritzak men egiten diola” Wertzen hezkuntza erreformari. Curriculum dekretu horiek erretiratzeko edota goitik behera aldatzeko eskatu diote Hezkuntza Sailari. ELAren esanetan, curriculum dekretuen zirriborroak proposamen pedagogiko interesgarri bat azaltzen badiu ere —kompetentzietan oinarritutako pedagogia eta curriculum gartzeta—, dekretu zirriborroek garbi erakusten dute LOMCEk hezkuntza-sistema osoa zentralizatzeko nahiz bere menpean edukitzeko eta edukiak nahiz pedagogia bera kontrolatzeko ezartzen dituen tresna guztiak onartzen dituela Eusko Jaurlaritzak: “Kompetentzietan oinarrituriko pedagogia eta curriculum proposatzeak bere zentzu osoa galtzen du, izan ere LOMCEk ezartzen duen estatuaren kontrolpeko ebaluazio-sistemak ezerezean uzten baitituzte horrelako planteamenduak”.

Ildo berean mintzo da LAB sindikatua ere. Haren aburuz, Heziberriren ardatza LOMCE da eta hau euskal dimentsioarekin osagarritu nahi du, baina oso modu xumean landuta. “Hau ez da be-



rria, Euskal Herrian gauzatu diren curriculum guztiak, Espainiatik edo frantses estatutik zehaztuak izan baitira”. Hor-taz, Heziberri LOMCEren eduki guz-tiak barneratzen dituela eta horiei Eus-kal Herriko edukiak eransten zaizkiela gaineratzen du. “Ebaluazioaren afera ere hor dugu. LOMCEtik zehaztuta etortzen bada, iruditzen zaigu gela ba-rruan planteatzen diren dinamikak az-terketa horiek ahalik eta modu txuku-nenean gainditzera bideratuta egongo direla. Horrela euskal kulturaren lanke-ta bakoitzaren borondatearen gainean geratuko da”. Edonola ere, uste du He-ziberriren formulario pedagogikoari dagokionez saiakera bat dagoela hez-kuntza beste parametro batzuetan uler-tu eta garatzeko. “Konpetentzien for-mulazioaz ari gara, zeinak egokiak izan daitezkeen baldin eta XXI. mendeko Euskal Herrian kokatzen baditugu”. Al-diz, ikasleen euskalduntzeari eta eus-kal kulturaren lanketari dagokionez,

hutsune nabarmenak ikusten ditu sin-dikatuak: “Heziberri jasotako konpe-tentziak edozein herrialdetan garatze-koak direla ematen du eta gure ustez, hauek Euskal Herrian eta Euskal Herri-ko ikuspegia izatea esentziala da”. LAB-ek beste ekarpen bat ere egiten dio cu-rriculum dekretuari. Haren esanetan, hezkidetzaren aipamenik ez dator zirri-borroan eta jendarte-eredu parekide bat garatze aldera, curriculumak hezki-detzan oinarritua beharko luke.

Hizkuntzen trataerari dagokionez, bat datoz sindikatu abertzaleak. Haien hitzetan, ikasle euskaldun eleanitzak garatzeko “ez da inolako urratsik ema-ten”, eta LABen aburuz, “sasoi honetan, non ereduak erabat euskalduntzen ez dutela onartua dagoen, Heziberri ez du urrats berririk ematen”. ELA-k ere an-tzeko ikuspegia du: “Curriculumak euskara ardatz izango duen sistema eleaniztuna proposatzen duen arren, LOMCEk ezartzen duen muga bere egi-

nez, egungo hizkuntzen ereduen siste-ma berresten du”.

EILAS sindikatuaren ustez, curricu-luma lantzeko prozedura “iruzur hu-tsa” izan da, “iluntasunez inguratuta, eskola-komunitatea baztertu duena”. Izan ere, sindikatu honen irudiko, He-ziberri ekimena mahai gainean jarri zu-tenek eta berorren alde agertu direnek interes bakarra dute: finantzaketa-ere-du berri bat. Bere esanetan baina, “hez-kuntza-sistemaren etorkizuna ezin du sare pribatuaren finantzaketa-arazo batek erabaki”.

EHIGE Heziberri planaren lehen fa-searen amaieratik agertu da oso kritiko, hainbat gabezia ikusten dituelako. Lur-des Imaz gurasoen elkarteko ordezkariaren esanetan, gaur egungo hezkun-tza-sistemaren ahultasun eta indarren diagnostiko esplizitu eta sakona falta da Heziberri; “Marko pedagogikoa-ren proposamenean hutsune nabariak ikusi genituen hasieratik: ikastetxeen

Heziberri plana

autonomian, eskusio arriskuan dauden ikasleen eskolarizazioan, irakasle-riaren formakuntzan, konpetentzien azalpenetan, berrikuntzan, elebitasun eta eleaniztasunen, aniztasunaren trataeran, genero-ikuspegian, konpetentzietan oinarritutako ebaluaketan, ikastetxearen emaitzak eta hobekuntzan, eskola eta hezkuntza lidergoan...". Era berean, ikasleen derrigorrezko hezkuntzako irteerako profila zehaztu gabe dagoela salatzen du eta edukien euskal dimentsioari dagokienez ere beste hainbat eragileren zentzu berean mintzo da: "Dekretuak planteatzen duen curriculum ereduak edozein erkidego elebidunerako balio du. Euskal Herriko gizarte eta hezkuntza errealitatearen erreferentziarik gabeko dekretu batek ez du hezkuntza-sistema propio bat eraikiko".

Curriculum dekretua onargarria dela irizten duten hezkuntza-eragile bakarretakoa Kristau Eskola da, nahiz eta uste duten hobetu edo zehaztu behar diren atalak badaudela, adibidez, ikasgeletan lantzeko konpetentzietan oinarritzen den lanaren zehaztapena, eskoletako proiektuak, aniztasunaren tratamendua eta, batez ere, ikastetxearen autonomia. LOMCE eta Heziberri bateragarriak izango ote diren galdetuta, Mikel Ormazabal Kristau Eskolaren zuzendariak dio LOMCE ez dela eurak nahi duten hezkuntza-legea. Maiz, ordea, iruditzen zaio legeak helburu gisa hartzen direla, hau da, eskoletan lortu beharreko xede gisa. Aitzitik, jomugak legeaz haratagokoa izan behar duela irizten du: "Gure kasuan, eta uste dugunez Eusko Jaurlaritzarenean ere, LOMCE hasiera edo oinarria izango da, baina inola ere ez amaiera, lege horren gaitetik dauden jomugak lortu nahi baititugu. Ikuspegi horretatik, ez LOMCE ez beste hezkuntza-legerik ezin da ozto-

po gaindiezina izan". Era berean, uste du, LOMCE bertan behera geratuko baltiz ere, Heziberri proposamenak baliagarria izaten jarraituko duela, "emaitza eta ebidentzietan oinarritua eta etorkizunera begira egonik Heziberrik edozein hezkuntza-legetan lekua baitu".

Euskal Hezkuntza Legetik urruti

Hezkuntza-lege propioa da Heziberri planaren hirugarren zutabea. Horren inguruan ere era bateko zein beste iritziak dituzte hezkuntza-eragileek. Kristau Eskolaren zuzendari Mikel Ormazabalek, esaterako, munduan hezkuntza-emaitza hoberenak dituzten herrialdeek hezkuntza-lege egonkorak dituztela dio eta egonkortasun horrek segurtasuna, argitasuna eta etenik gabeko hobekuntzarako lekua bermatzen diela hezkuntza-eragile guztiei: "Gure posiziotik hezkuntza-lege egonkoraren zain gaude. Lege horrek berrikuntzaren aldeko jarrera eduki beharko du helburuak eta apustuak argi eduki ditzan. Espero dugu lege hori Heziberri egitasmotik sortzea". Era berean, eskatzen du lege hori printzipio pedagogikoetan oinarritzea eta ez politikaren norabidean.

Ikastolen Elkartearen aspaldiko eskarietako bat da Araba, Bizkai eta Gipuzkoarako Hezkuntza Lege propio bat. Gainera, aintzat hartuz gero curriculum dekretuen zirriborroei beste eragile batzuek egin dizkieten kritikak, besteak beste finantzaketaz eta hizkuntza-ereduez egindakoak, "dekretuetan bildu ezin direnak legearen bidez erregulatu beharreko gaiak direlako, konbentzimendu handiagoz eskatzen diogu Hezkuntza Sailari Hezkuntza Legerantz urratsak egiten hasteko". Horretatik Eusko Jaurlaritzari eta Hezkuntza

Sailari galdegin diote lehenbailehen abian sar dezatela Heziberri 2020aren hirugarren fasea, Hezkuntza-Lege bati ateak zabalduko dizkion prozesua, curriculum dekretuen prozesua amaitu arte itxaron gabe: "Gure ustez, lege honek, besteak beste, konpetentzietan oinarritutako Euskal Curriculum, euskararen ardaztutako eleaniztasuna eta Hezkuntza Zerbitzu Publikoa indartu eta garatu behar ditu, hori bailitzateke benetako urratsa ikastolok babesten dugun Hezkuntza Sistema Propiorako bidean". Antzeko norabidean hitz egiten du LABeko arduradun Aitziber Perezek ere: "Guretzako lege berri batek hiru ardatz barnebildu beharko litzuzke; euskal curriculum, ikasle euskaldun eleaniztasun eta publikotasun eredu bat". Hala ere, uneotan legea egiteari helduko zaionik ez dute uste.

Aitzitik, momentuz dituen balorazioarako elementuekin, EILASEk uste du Hezkuntza Legeak ez duela hezkuntza-sistema propio baterantz pausurik ematen, kontrakoa baizik. Bi abiadurarako hezkuntza-sistema egonkortu egiten duela salatzen du eta interes propioen izenean lanean dabiltzanen interesak indartzen dituela kritika egiten du: "Egoera oso larria da. Erkidegoko zonalde askotan ikastetxe publikoak zerbitzu subsidiario edo ikastetxe ghetto bilakatu da azken urtetan, txiroen, etorkinen eta behar bereziak dituzten umeen eskola. Hezkuntza-lege batek era horretako errealitatei eman beharko lieke irtenbidea: gure herritarren aukera berdintasuna bermatzeari alegia. Horretatik kalitatezko euskal eskola publikoaren aldeko legea behar dugu. Heziberrik eta labean dagoen legeak alde batera uzten dituzte kontu hauek guztiak, edozein hezkuntza-legeren ardatz izan beharko luketen kontuak alegia".

maite goñi



ELKARRIZKETA

Irakaslea eta ICTetan aditua

“Gure mendeari dagokion moduan irakatsi ezean, ikasleei etorkizuna lapurtzen ari gatzaizkie”



Euskarako eskoletan Realeko jokalaria elkarriketatzeko *WhatsApp* aritzen dira Maite Goñiren ikasleak. Adibide bat besterik ez da. Hezkuntza bizi ditugun garaietara egokitu behar dela sinetsirik, eredu memoristikoen aurrean bestelako helburu pedagogiko-didaktikoak lortzeko, elkarrekintza sustatzeko, kolaborazioa bermatzeko, motibazioa igotzeko, nork bere erritmora ikasteko... etekina ateratzen die teknologia berriei Ordiziako Jakintza ikastolako eta Mondragon Unibertsitateko irakasleak. Denbora darama horretan. Eta urteak aurrera joan ahala, ICTak hezkuntza-estrategietatik kanpo gelditzen ari direla ikusteak kezkatzen du irakaslea.

Duela hamar bat urte teknologia berriekiko hezkuntzan zeuden errezelok gainditu direla esan liteke? Ezezkotik “nola” horretara pasa gara?

Nik uste nuen baietz. Urte asko daramatzat formazioan, hasieran “ez, ez, ez” entzuten nuen, eta gero garai bat egon zen “bale”, argi zegoela beharrezkoa zela eta irakasleak “nola” horretara pasa ziren. Baina azken denbora hauetan ezkortxeago nago: ematen du teknologia berrien uholdea pasa dela eta orain beste gauza batzuetara jarri behar dugula, denok formaturik eta informaturik, eta gure klaseetan ICTak erabat txertaturik baleude bezala eta gure jardunean teknologia berriak aprobetxatuko bagenu bezala; eta hori ez da horrela, oso urruti gaude hortik. ICTek daukaten ahalmen guztia ateratzetik oso urrun gaude, baina uste dut estrategiatik kanpo gelditu direla.

Zer ari da galtzen ICTak erabiltzen ez dituen irakaslea?

Teknologia berriak erabiltzea ala ez, ez da irakasleon hautua soilik, XXI. mendeko ikasleak behar dituzten konpetentzia digital batzuk garatzea, horretarako guk geuk, hasi txikienekin lan egiten dutenetatik eta etapa guztietara, baita bere berezitasunekin, jakin behar dugu teknologiak nondik nora doazen. ICTen onurak ezagutu egin behar ditugu helburu didaktiko-pedagogikoak lortu nahi baditugu. Dena den, konpetentzia digitala ez da ikasleek eta irakasleek bakarrik geureganatu behar dugun konpetentzia, profesional mailako konpetentziak direla esango nuke, zeharkakoa.

Richard Gerverrek esaten duen moduan, irakaslea da gizarteko profesional garrantzitsuenetakoa bat: guk hezten ditugunak izango dira herrialdea eta mundua mugituko dutenak, gauzak aurrera aterako dituztenak edo atzera eramango dituztenak. Profesional garrantzitsuak baldin bagara, profesional bezala jokatu behar dugu, hau da, beti egon behar dugu prest hobetzeko, aldatuta berrien aurrean malgutasunez jokatzeko...

Teknologia berriek zertan aldatu dute irakaslearen eta ikaslearen rola?

Teknologia berriek irakaslearen rola birplanteatzea eskatzen dute, baina baita ikasleena ere. Informazio guztia denon eskura dago gaur egun, klik batera, orduan beste gaitasun batzuk eduki behar dituzte ikasleek. Ikasleei ikasle-ezkoizle rola jokatzeko aukera ematen diete ICTek, besteekin lanean kolaborazioan materialak sortzen dituen izateko aukera, eta irakasleari, berriz, bide hori gidatuko duena izateko aukera ematen dio, ez soilik transmisio-lana egingo duena; niretzat hori da irakaslearen rola birplanteatzea. Irakaslea, ez da, dagoeneko, informazio-iturri bakarra, hamaika iturri dituzte eskura ikasleek, erakutsi behar dieguna da oso kritikoz izaten informazio horrekin.

Helburu pedagogikoak iristen lagundu diezagukete teknologiek, baina horretarako hezi egin behar dira. Badago sinesmen faltsu bat, gure seme-alabak edo ikasleak digitalki alfabetatuak daudela dioena, natibo digitalak direla, eta ez da horrela, erakutsi egin behar zaie. Oso iaioak dira tresna erabiltzean, baina ez daude alfabetizatuta, ez dituzte konpetentzia digitalak.

Zeintzuk dira aipatu dituzun oinarriko konpetentzia digitalak?

Dagoen *informatikazioaren* aurrean, alde guztietatik iristen zaigun informazio uholde horren aurrean, garrantzitsua da irakasleok ondo formatuta egotea, teknologiei etekina atera ahal izateko. Oinarriko konpetentzia digitalen artean marko europarrak bost atal markatzen ditu: informazioari, komunikazioari, edukien sorkuntzari, segurtasunari eta arazoan ebaizpenari loturikoak.

Informazioa bilatzeari dagokionez, bilaketa esanguratsua eta azkarra egiteko gai izan behar dugu, eskura dugun informazioarekin kritikoz izaten jakin behar dugu, iragazten, ondo erauzten, gordetzen eta etiketatzen jakin behar dute, berriro erreperatu nahi izanez gero, sailkatzen.

Komunikazio-konpetentziari dagokionez, gaur egungo aro digitalean



komunikatzea zeinen garrantzitsua den ohartu behar dugu. Ikasleek ere komunikatzea beharko dute geroari begira, taldean lan egiteko. Teknologia berriek ematen dute aukera txikitatik komunikazio gaitasun hori lantzeko, bai idatziz, bai ahoz eta baita baliabide multimedialak erabiliz ere. Gaur egun edonork eduki dezake *pod cast* bat, edo bideoblog bat, eta horrek hezkuntzan, ikaragarriko ahalmena dauka informazioa eta edukiak partekatzeko eta ikasketan sakontzeko. Adibidez: EGArako prestatzen ariko bagina, edo ingelesezko edozein titulazio ateratzeko, ahozkoa grabatu dezake ikasleak, entzun, ikusi akatsak, guztien artean iritzi kritikoa sustatu, aholkuak eman, iritzi konstruktiboa landu genezake taldean teknologien bidez, eta hobetu. Komunikazio gaitasuna lantzeko oso inportantea da teknologia berrien bidezko elkarrekintza. Beste ikastetxeekin harremanetan ipintzeko aukera ere ematen digute teknologia berriek, idazlanak elkarlanean osatuz, esate baterako.

Edukiak sortzen jakin behar dugu, kompetentzia hori ere izan behar dugu. Benjamin Bloomek esaten du sortzen duzunean ikasten duzula benetan, edo

irakasle plantak egiten dituzunean, antzerkiak, simulazioak egiten dituzunean barneratzen duzula benetan ikasitakoa. Teknologia berriek edukiak sortzeko eta goi mailako pentsamendurako gaitasun horiek lantzeko aukera ikaragarriak ematen dituzte; ikasleek bideoak sor ditzakete, blogetan sorkuntzak egin ditzakete, nahasketak egin, *creative commons* lizentziak dituzten edukiak hartuz egokitu, eraldatu, itzuli... Gure ikasleek sortzeko eta gainera sortzen duten guztia besteen eskura jartzeko parada eskaintzen diete teknologiek. Baina horretarako, jakin egin behar da zer lizentzia duten lanek, ea besteen lanak nola erabil ditzakegun eta segurtasunaz ere jakin beharko genuke irakasleok. Hori da beste kompetentzia digital bat, segurtasunarena. Sarean segurtasunez nola ibili transmititzeko irakasleok kompetentzia horren jabe izan behar genuke, gailuen segurtasuna ezagutu, bai sakelakoa, ordenagailua... spam-ak, birusak, atakeak saihesteko. Gailuak babesteaz gain, datu pertsonalak eta identitate digitala ere babestu beharko genituzke.

Arazoen ebazpena da bosgarren kompetentzia. Oinarriko arazo teknikoak konpontzen jakin beharko genu-

ke batetik, eta bestetik, geure hutsunak identifikatzen ikasi beharko genuke.

Teknologia irakaskuntzaren zerbitzura erabiltzea proposatzen duzu; nola lagun dezakete teknologiek helburu pedagogikoak lortzen?

Teknologia berriei buruz hitz egiteko, hasteko eta behin, beldurra kendu behar dugu, ez gara teknologiari buruz hizketan ari, baizik eta teknologia nola egingo dien mesede helburu didaktiko-pedagogiko batzuei.

Oraindik ere, teknologia berriei buruz hitz egiten dugunean, pertsona bat bere mugikorrarekin isolaturik irudikatzen dugu, baina ondo erabilia mesede handia egin dezakete. Isolatearen kontra doa justu web 2. 0-k eta sareak eskaintzen dituzten aukera horiek. Adibidez, mugikorrarekin egin litezkeen gauzak izugarriak dira, hasi bideoa grabatu, audioa grabatu, konpartitu, sarean besteren eskura jarri, irteera batera joaten zarenean loreak identifikatu, geolokalizatu non dauden, liburu digitalen edukia bistaratu, sare soziale-tan partekatu, apunteak hartu, zereginen zerrendak sortu, ordutegiak eta egutegiak kudeatu...

“Teknologia berriak erabiltzea ala ez, ez da irakasleon hautua soilik, XXI. mendeko ikasleak behar ditu konpetentzia digital batzuk garatzea

”

“Ez gara teknologiari buruz hizketan ari, baizik eta teknologiak nola egingo dien mesede helburu didaktiko-pedagogiko batzuei

”

Taldean lan egingo duen jendea eskatzen dute enpresek, gaitasun pertsonalak dituztenak, komunikatzeko gaitasuna daukatenak, enpatia daukatenak, erresistentzia daukaten pertsonak... bada profil horretarako ere prestatu egin behar dira ikasleak, eta horrez gain, ezagutzen ez ditugun lan batzuetarako prestatu behar ditugu, orain existitzen ez diren lanak egingo baitituzte gure ikasleek. Beraz, behar dutena ez da eduki zehatz batzuk ezagutzea, baizik etengabe ikasten jarraituko duten ikasleak, profesionalak, pertsonalak hezi behar ditugu. Guk hazi hori erein behar dugu eskoletan, jakin-min hori piztu behar dugu, eta teknologiek aukera berriak eskaintzen dizkigute prestakuntza horretan. Edukia, informazioa, jakintza, eskura dugu; erakutsi behar diegu hori guztia nola kudeatu behar duten.

Denok ados baldin bagaude teknologia garrantzitsua dela, eta gure ikasleek konpetentzia digitalak eduki behar dituztela ikusten badugu, aukera ezberdinak dauzkagu aurrean: bata da teknologia erabiltzea orain arte beste modu batera egiten genituen gauzak egiteko, baina, bestetik, teknologiak hedatu egin ditzake aukera horiek, eta beste urrats batzuk egiten lagundu. SAMR (Substitution, Augmentation, Modification, Redefinition) ereduak, adibidez, zer mailatan gauden identifikatzen laguntzen digu. Substitution da lehenengo maila: ikasleei testu bat idazteko eska diezaiekegu, teknologiak erabiliz *Google docs* bat erabiliz, hori ordezkapen bat litzateke; baina teknologiak pauso bat gehiago emateko (Augmentation) ere erabil ditzakegu: ariketa horretan, *Google docs*-ek iruzkinak egiteko aukerak dauzka, ikasleak idatzi, irakasleak iruzkinak egin, ikasleak erantsi, ados baldin badago ebazteko botoiari eman diezaioke... Ataza edo erronka paperekoaren berdina litzateke. Hurrengo pausoa, Modification, ataza desberdin bat litzateke, testua bakarka idatzi beharren denon artean idaztea, adibidez. Eta behin hasita, ikastetxeko paretetatik atera eta

mundu mailako beste edozein ikastetxerekin ipuin bat kolaborazioan egin dezakegu (Redefinition) eta gero hori gure blogetan txertatu dezakegu, eta *Twitter*bidez zabal dezakegu. Helburu didaktikoa idazten hobetzea da, eta teknologiek eskaintzen dizkiguten aukerekin guk erabakitzen dugu ataza hori noraino berdiseinatzen dugun.

“Denok ados baldin bagaude”, esan duzu. IKTekin irakasle bat engaiatzea ez da aski, talde osoa inplikatzeko garrantzitsua da, ezta?

Ezinbeste-ezinbestekoa da estrategia konpartitua eta adostua izatea. Irakasle bakar batek egin behar badu, honek ez dauka etorkizunik. Asko utzi izan da urte hauetan IKT arduradunen esku, eta “badator hau lan gehiago ematera” ulertu dute beste irakasle askok. Gaur egun kutsaduraz ari dira zabalitzen IKTak eskoletan, batzuek ikusten dituzte emaitza on samarrak edo beste modu batera funtziona litekeela edo ikasleak motibatuxeago daudela, edo ikusten dute, besterik ezean, gaur egun eta etorkizunean jakin beharreko zerbait dela eta garrantzia ematen hasten dira. Baina ez da beti horrela izan, formazio-planetan, nire ustez, hutsu-neak egon dira.

Teknologia berria ikastetxeetan sartzean ere etxea teilatutik hasi dugu, hornitu dira gelak ordenagailuz, egin da saiakera serio bat irakasleen formazioan tresnen bitartez, baina marko orokorrago bat buruan eduki gabe. Ez da tresna kontua, baizik eta tresna horiek pedagogikoki zertarako nahi ditugun ulertzea falta izan da, adibideak behar dira, ideiak... Begiak zabaltze hori falta zen, web 2.0 tresna hauek guztiak hezkuntzan zer aukera eman ditzaketen ikusten hasteko.

Baina adostasunaz gain, baldintzak eta bitartekoak beharrezko dira. Eskolak prestatuak al daude teknologia berriei etekin guztia atera ahal izateko?

Azpiegiturak ere ikastetxe askotan ez dira onenak izan, ordenagailuak eduki ditugu urte batzuetan, baina ezin

izan ditugu ondo erabili. Hor oraindik ere bide luzea dago egiteko. Tresna sartu zen, borondate handia egon da, eta inbertsio handia egin da, baina nola daude gure ikastetxeak? Alderdi horretatik, nik uste dut berriro planteatu behar direla gauzak.

Dena den, etekin guztia zein den inork ez daki, hasteko. Baina argi dago oso urruti gaudela. Adibide argi bat sakelako telefonoak dira. Mugikor batekin grabazioak egin ditzakezu, argazkiak, komunikatu besteekin... Lehen irratia, bideo kamera, aparailu asko behar genituen hori bera egiteko. Mugikorrak hezkuntzan sartu behar direla esaten dugunean ez gara ari esaten denbora guztian eta edozein modutara sartu behar direnik edozer gauza egiteko, ez, pentsatuta, ondo pentsatuta sartu behar dira, beste edozein unitate didaktiko diseinatzen denean bezala, ondo pentsatuta eta planifikatuta: “Zer material, zer bitarteko erabiliko ditut helburu hauek lortzeko? Bada kasu honetan sakelako bat erabiliko dut, edo telebista behar dut, edo papera eta ezabagoma...”. Ikasleek Realeko jokalariren batekin elkarrizketa bat prestatu behar badute, *WhatsApp* erabiliko dute, edo *Twitter*-a, eta eurek badakite ariketa hori bukatzen denean gorde behar dituztela, mugikorra ez baitute erabili behar momentu horretan *WhatsApp* peatzeko.

Batzuk oso murgilduta zaudete mundu honetan, eta egunero erabiltzen dituzue IKTak eskolan, beste batzuek, aldiz, ez dute ez *Twitter* konturik, ez bestelako txokorik sarean... Nola laburtu liteke irakasle batzuen eta besteen arteko eten hori?

Lehenengo puntua pentsamendua aldatzea da. Bi orduko formazio-ikastaro batek ez dizkizu begiak irekiko, konbentzimendutik hasi behar da. Bide horretan pauso on bat sareak erakitzea da, adibidez, *Twitter*-en edo beste sare profesional edo sozial batean, pertsona interesgarriak jarraitzea, eta galbahe lan on bat egingo dizuten iragazkien bidez zer egosten den ikustea,



horrek ahalbidetuko luke jakin-mina piztea; pauso hori eginez gero, zailena eginda dago.

Guk gure mendeari dagokion moduan irakatsiezean, ikasleei etorkizuna lapurtzen ari gatzaizkie. Horretarako azpiegitura on bat behar da, wifiak garatuta, eta batez ere irakasleok konpententzia digitalen garrantzia ulertu behar dugu; ez da irakasleon hautua. Beste edozein enpresatako profesional egiten duten bezala, makina berri bat etortzen denean, formazioa behar da, etengabeko formazioa. Egia da irakaskuntzan etengabea dela, eta teknologia berriena ez dela ahuntzaren gauerdiko eztula, hau martxan jartzeko konfiantza behar da, eta ideiak aldatzea; irakasleak ohituak egon gara gu jaun eta jabe izatera gelan, orojakileak, eta honek guztiak kolokan jartzen du figura hori. Aldaketa handia da.

Teknologia berriek irakasteko-ikasteko

modu berriak ekarri dituzte. IKTek nola hobetu dezakete ikasleen ikasketa prozesurako motibazioa?

Nik uste dut teknologiek motibazioa igotzen lagundu dezaketela. Klaseak egokitu egin behar dira gauregun-go ikasleen beharretara, jakintza ez da estankoa, orain dakit euskara eta gero historia... gero, historiako azterketa bat egiten ari dira, eta ortografiari, adibidez, ez diote inongo garrantzirik ematen, hori ari gara irakasten. Teknologia ez dira helburu, zeharkako tresna baizik.

Literaturako eskoletan, adibidez, literaturaz gain konpetentzia digitalak barneratu ditzakegu: Sarean autore bati buruz dagoen informazio guztia artatzen dute, hori tresna jakin batean gordetzen dute, ondoren modu kolaboratiboan aurkezpen bat egiten dute, diapositibez lagunduta ahozko tasuna lantzeko aurkezpena egiten dute, liburua irakurtzen dute, booktrailerra egiten

“ Irakasleak ohituak egon gara gu jaun eta jabe izatera gelan, orojakileak, eta honek guztiak kolokan jartzen du figura hori ”

“ Ikasteko modu berriek ikasle guztiei ematen dizkiete aukerak bakoitzak bere erritmora, geldiago edo azkarrago, ikas dezan ”

dute, besteei gogoia pizteko liburuak irakurtzeko. Eta hori dena osatuta dagoenean webgunea autoreari oparitzen diote, eta bitarte horretan, *Twitter* bidez, gauzak autorearekin partekatzen joaten dira. Literaturaz aparte konpetentzia digitala garatzen ari dira, informazio nola garatu, kritikok izaten ikasi, interesgarria den informazioa erazten dute txosten bat egiteko modu kolaboratiboan. Bizitza erreala ez da estankoa, eta jakintza ere ezin dugu modu estankotan transmititu. Geografian, matematiketan, historian, gorputza ezagutzeko... irudika ezin ditugun aukerak zabaltzen dizkigute teknologiek.

Beste hizkuntzetan adibidez bada *KHAN Academy* proiektua oso interesgarria da, milaka eta milaka bideo azalpenekin. Edozein irakaslek alta eman dezake plataforma horretan eta norbere gela sortu. Plataformak berak ematen dizu aukera, begibista batean, etxerako lan gisa bideo bat edo jarduera batzuk egiteko eskatu baduzu, arin-arin, zer egin duen nork ikusteko.

Euskararen kasuan, euskal komunitateak egin duena dago eskuragai, norbanakoez, irakasleek, administrazioek, komunitate txikiek egiten duten... hemen oso komunitate txikia gara baina oso ekimentsua. Horri esker daude *Twitter* eta *Facebook* euskaraturik eta *Wikipedia* dago dagoen tokian kokatua. Horri etekina atera behar zaio hezkuntzan.

Eredu memoristikoa baten aldean, “gamification-ereduak (jokuen ezaugarriak baliatzea), adibidez lagundu lezake ikasleak motibatzen?”

Beste alorretan dauden tresna interesgarriak baliagarri direnean hezkuntzan erabili egin behar direla uste dut, horixe da adibidez, *gamification*: jokuen ezaugarriak hezkuntzan erabiltzea. Jendea motibatzen egiten da, erronkak bete behar dira, mailaz igo, bukatzean besteei jakinarazten zaie, saria jasotzen... Tresna horrek ikaslea motibatzen dezake sekuentzia didaktiko batean aurrera egin dezan.

Gure ikasleak oso ohituak daude

inputak medio desberdinetatik jasotzera bisualki, batez ere aisialdian. Kontraesan bat da tresna horiek guztiak edukita eskolan paper bat edo testu bat bakarrik ematea, non ezin duzun klikatu. Bizitzan bestelako input batzuek inguratuak daude eta eskolan papera ematen diegu.

Hodeian lan egitea litzateke, IKTekin lotzen dugun irudi indibidualista horren aurkako beste eredu bat, ezta?

Egokitu egin beharko dugu gaur egungo baliabideetara. Aurkezpen bat prestatzeko, adibidez, orain arte bakoitzak bere ordenagailuan egiten zuen lana, gorde, pendrivean pasa edo besteari korreoz bidali, jaitsi, editatu, aldatu, besteak hartu... gaur egun hodeian lan egin genezake. Googlek jartzen du ofimatika pakete guztia gehi ehunka aplikazio denon eskura, eta horiekin edonondik edozein momentutan egin liteke lan Interneteko konexioa baldin badago; beti ari gara azken bertsioaren gainean lan egiten, elkarrekin kolaboratuz. Gaur egun ez da presentzialki lan egitea beharrezko, bakoitza dagoen tokitik sartzen da dokumentu edo aplikazio batera eta bere ekarpenak egin ditzake. Bitartean elkarrekin txateatu dezakete, aldaketak ikusi, irakasleak iruzkinak gehitu ditzake, ikasleak horien gainean markatu irakurri eta ulertu gisa, historiala ikus dezakezu nork egin duen zer... hori guztia lehen ezinezkoa zen. Aukera pila bat zabaltzen zaizkizu eta horiek guztiak klaseko webgune batean, blogean, wiki batean edo daukazun tresna daukazula ere argitara dezakezu gurasoek ikus dezaten zertan ari garen, horrek dakarren gardentasunarekin...

Flipped classroom-aren proposamenarekin eskolak iraultzea proposatzen duzu.

Guk orain klasean azalpenak ematen dizkiegu eta gero ikasleek etxerako lanak egiten dituzte. Askotan etxerako lan horiek ezin dituzte bakarrik egin, eta gurasoek lagundu behar diete euren ez dakizkiten materiaren edo parti-

kularrean apuntatu behar dira. Eskola iraultzea litzateke flipped classrooma: klaseak benetan aprobetxatzea. Azalpenak eta kontzeptuak etxean jaso ditzaizkete ikasleek, irakasleak berak egin dezake bere *flipped classroom*-a, azalpenak bideoan grabatuz, behin bi aldiz, nahi beste alditan ikus dezaten ikasleek, bakarrik, gurasoekin... polikiago, azkarrago, azalpen horri lotutako ariketa batzuk ere jar litezke. Horrek oso bide interesgarria irekitzen digu: ikasle bakoitzak bere erritmora ikasteko aukera luke. Ez dugu beste modu batera ikusten: adin bereko ikasle guztiak oinarri berdina edukiko balute bezala, eta hori ez da horrela, etengabe ikusten dugu zer-nolako ezberdintasunak dauden gure ikasleen artean, eta denak jartzen ditugu, oro har, abiapuntu berean, eta helmuga berera iristeko eskatzen diegu, baina badaude atzetik doazen ikasleak eta badira aurretik doazenak ere. Ikasteko modu berri hauek ikasle guztiei ematen dizkiete aukerak bakoitzak bere erritmora, geldiago edo azkarrago ikas dezaten.

Ikasleak bere erritmoan ikas dezake, eta irakasleak indarra jar dezake ikasleak gehien trabatu diren hori sakontzen eskolan, edo erabili dezake klase hori proiektuak aurrera eramateko... *Learning analytics* delakoa asko zabaltzen ari da, digitalizaturik dagoen heinean, jakin liteke zeinek zertan egingen duen huts, eta pertsona horri sistemak berak proposa diezazkioke ariketa gehiago, jokoak, edo irakasleak prestatzen duen guztia.

Ez dira hitz hutsalak, adibide hauekin guztiekin argi ikusten da irakaslearen rola aldatu dela: irakaslearen rola gidariarena da. Noski teknologia gabe ere jorra genezake bide hori, baina teknologiek aukera handia ematen dute.

Pentsamendu kritikoa aipatu duzu... nola landu dezakegu eskolan txikitatik pentsamendu kritikoa teknologien bidez?

Irakaskuntza tradizionalan, sarri, irakaslearen hitza “amen” izan da, “zu hor eta ni hemen”. Irakaslearen hitza izan da balio duena. Gaur egun edo-

zein ikasleek edozein momentutan beste iturri batetik zalantzan jar dezake irakasleak esan duen hori. Iturri ezberdinetatik jasotzen den informazioa txikitatik inoiz baino hobeto lantzeko aukera daukagu, horrela landuko genuke pentsamendu kritikoa, argi izan behar baitugu Interneten murgiltzeko kritikotasuna lantzea ezinbestekoa dela, eta horregatik irizpide batzuk barnerratu behar dira: Erakutsi behar zaie Interneten dagoen guztia ez dela egia, *Google*-k erakusten dizun lehen emaitza ez dela zertan onena, autorearen izena errekonozitua den begiratu behar dutela, iragarkirik badagoen, webgune horren atzean zer nolako interesak dauden... Hori guztia landu egin behar da, Internetek alde onak dituen bezala alde txarrak bai baitauzka eta hori pentsamendu kritikoa lantzea ere bada.

Norberak sorturikoa besteen eskura jartzea, eta besteek sorturikoa norberak erabiltzeko, zer garrantzia du *creative commons* lizentziak?

Bi aldetatik du garrantzia: bai edukiak sortzen dituenaren aldetik, eta baita besteren edukiak erabiltzen dituenaren aldetik ere. Denok erabiltzen ditugu Interneteko edukiak aurkezpenak egiteko, izan argazkiak, musika, estekak, informazioa, bideoak... Baina oso jende gutxi daki zer den *creative commons* lizentzia, zer *copyright*-ak, eta bai irakasleek eta ikasleek jakin behar dute Interneten dagoen guztia ezin dela erabili. Hezkuntza integrala izango bada horren guztiaren berri eman beharko luke eskolak.

Gure komunitateari begira, edukiak partekatzea oso garrantzitsua iruditzen zait. Baina gure aurkezpenetan edo txostenetan edo aldizkarietan ez badugu espreski jartzen *creative commons* lizentzia dutela, *copyright*-a dute. Beraz, gauza horiek zaindu egin behar dira, eta horretarako, beste behin, kompetentzia digitala izan behar dugu.

Oinarritzko segurtasunarekin ibili gaitzen sarean, zer zaindu behar dugu?

Gure gailua babesten jakin behar

dugu, bai irakasleok eta baita ikasleek ere. Badaude arrisku batzuk, kalean dauden bezalaxe. Kalean zebrabidetik pasa behar dugun bezala, sarean ere zebra bidea erabili behar dugu. Adibidez, antibirus bat eduki behar dugu aplikazioak jaistean garbiak diren ala ez ikusteko; jakin behar dugu aplikazioa jaisten dugunean zertarako baita ematen dugun, gure edukietara, kontaktuetara, argazkietara, sarbidea izan eman baitezakegu, gure izenean publiko dezakete. Lehenengo mugikorra eskuratzean, lagunduta irten behar dira, kalera lagunduta irteten diren bezalaxe.

Nortasun digitala, sareak guri buruz dakien guztia, zaindu egin behar da, izan guk igo duguna (argazkiak, edukiak...), baina baita besteek guri buruz jar dezaketena ere; zainketa hori egin dezakezu alarma bidez, zure izena agertzen den guztian zuri adieraziz; edo zure komunitateari esanaz nola nahi duzun ateratzea; edo *Google*-ri esatea nola atera nahi duzun, gutxienez profila baldin badaukazu zuk zeuk erabakitzea nola nahi duzun identifikatzea... Eta horiek guztiak erakutsi egin behar zaizkie ikasleei.

Ikaslearen portfolioarena ere garrantzitsua iruditzen zait. Ikasle garaian egindako guztiaren erregistro bat egitea oso interesgarria da, zure txokoa edukitzea urte urte egindako guztia gordetzeko... lan bila goazenean gure tituluak, graduak, masterrak... ontzat ematen dira baina horiez gain gure identitate digitala kontuan hartzen da. Ikasteko modu berriak daude ikas litezke *Mooc Massive Online Open Course*-ak, munduko unibertsitate onenetakoa doain eskaintzen dituzten ikastarok, eta agiri horiek guztiak bildu ditzaizkegu, gure titulazioak bezainbeste edo gehiago balioko baitigute.

Baina hau guztia ez da ez irakasle eskolan, ez ikastaroetan konpontzen, baizik eta norbanakoaren jakin-mina eta jarrera dira gakoak. Etengabe sortzen doaz erreminta eta aukera berriak. Zure formazioa aurrera eramateko gaitasuna izatea, ez dago beste sekreturik.



LOMCEri ez, Euskal Herrian gure hezkuntza eraiki

Nora SALBOTX, Amaiurko eskolako zuzendaria

“Herri bezala LOMCEri erantzuten ari garenaren kontzientzia hartu behar dugu”

Eguneroko lanean bizi du LOMCE Nora Salbotx Amaiurko (Nafarroa) eskola txikiko zuzendariak, beste irakasle askok eta askok bezala. Eta egunero erantzuten dio erreformari, aniztasunari, sormenari, pentsamendu kritikoari, inklusioari leku eginez eskolan, beste irakasle askok eta askok bezala. Erantzun horren garrantziaz kontzientzia hartzea bera, Salbotxen iduriko, erantzuna eraginkorrago egingen hasteko bide bat litzateke.

Lehendik aski borroka egin duzue irakasleek, ikasle eta gurasoek murrizketen aurka... Horren ondotik, nola harrapatu zaituzte LOMCEk eskolan?

Murrizketekin ikaragarritzko lana egin zen. Administrazioetik hezkuntza-komunitatean batzuek besteen aurka jartzeko saiakerak izan ziren, gure artean liskarrak sortzeko. Baina, kontrako, murrizketen aferak indartu egin zuen komunitate-izaera, guraso eta irakasleok elkarrekin lanean aritu bainekin eta mobilizatu ginen murrizketen aurka; olatu horien harira dator LOMCE. Hor bi une daude: iazko ikasturtea, LOMCE aplikatu aurretiko une hori guztia, batetik; eta bestetik, bat-batean LOMCE ikastetxeetan sartu zai-



gunekoa. Aurreko ikasturtea murrizketen aurkako dinamikaren segida izan zen. Adibidez, gure ikastexean eragile desberdinen irakurketak jaso genituen, guraso elkarteetan, Sortzen Ikasbatuaz, Ikasle Abertzaleen, sindikatuen etabarren materialen eta irakurketen konpilazioa egin genuen eta gurasoekin partekatu genuen, eta kurtso hasierako bileretan zalantzak argitzeko lana egin genuen. Inguruko beste ikastetxeetan ere aurkezpenak egin ziren.

Bat-batean kurtsoa hasi denean, berriz, badirudi lan hori guztia hor gelditu dela, aurre kontzientziazioa

egin ondoan, ez dugu jakin horri guztiari jarraipenik ematen. Hutsune bat dago hor.

Zergatik? Aurretik lanketa hori egin baldin bada, zergatik uste duzu ez dela jakin aurre-lanketa horri jarraipena ematen eta LOMCEren aurkako dinamikarekin jarraitzen?

Eznuke jakinen argi erraten zergatik. Hasteko, gure zonaldeari eta eskola txikiei dagokienean (eta uste dut Autonomia Erkidegoan ere gauza bera gertatu dela), hasieran administrazioetik esan ziguten urte bateko moratoria bat izanen genuela, beraz, aur-

tengo ikasturtean LOMCEk ez zuela eraginen esan ziguten. Hori arrazoi bat izan da ekimen handiagoa ez edukitzeko gure eskolei dagokienean eta pentsatzen dut Autonomia Erkidegoan ere antzekorik gertatu zitekeela, la-saitasun antzeko bat ekarri zigun mo-ratoriaren aipamenak. Kontua da, ez guk hezkuntzako eragileok, ez sindi-katuek ez dugula jakin lotzen aurreko mobilizazioen dinamika eta oraingo egoera.

Irakasle gisa, LOMCEren zein alderdi iruditzen zaizkizu okerrenak? Azterketei buruz asko hitz egin da, beste punturen bat?

Delorsek abiatutako bidetik eta euskal curriculumean ere aipatzen ziren ikuspegi konpetentzialetik —non ikuspegi humanista pertsonan foka-tzen den—, bat-batean, kontzeptuen zerrendatze batera pasatu gara, ez di-ra, sikiera, jarrerazko edukiak kon-tuan hartzen. Kontrara, kontzeptu-ze-rrenda bat aurkezten zaigu, aski modu arbitrarioan egina. Zerrenda hori kon-bentzio bat da, nonbait erabaki dena eta guk irentsi behar duguna, eta ze-rrenda horrek interes konkretu eta in-teresatu batzuei erantzuten die: inte-res merkantilistei. Konbentzio hori, beraz, gure hezkuntza-jarduera fiska-lizatzeraz dator, eta ikaragarri kezka-garria iduritzen zait puntu hori.

Logika kuantitatibo bat dauka gai-nera curriculumak: haurrari kalifika-zio numeriko bat ezartzea eskatzen zaio ikastetxeari, nahiz eta momentuz ikasleen familiek ez duten ikusiko ka-lifikazio hori. Ebaluazio sumatibo huts bat ezarri nahi dute, eta hori ez da eba-luazio bat, kalifikazio bat da. Lehen haurrak “taldean lan egiteko gaitasu-na” zuela erraten genuen, eta orain “zatitzailea, zatikizuna eta abar” eza-gutzen dituela erran behar dugu, per-tsonak gisa horretan zatikatu ahal bali-ra bezala, eta logika horren arabera hezi nahi dituzte umeak.

Horrez gain, [Wert] ministroak bere garaian esan zuen LOMCEk españoli-



zatzeko helburua zuela, eta horrez ha-ratago, identitatez hustu nahi du hez-kuntza, *no world* batean bilakatu nahi du hezkuntza. Adibidez, hizkuntzari begira, lehen testu tipoetaz, generoez, erabilera sozialeko testuei buruz hitz egiten zen, zentzu komunikatiboa zeukan hizkuntzak; orain, berriz, zen-tzu erabat gramatikala eman nahi dio-te hizkuntzari; kaligrafia eta gramatika balioestera itzuli gara, Finlandiako ereduaren justu kontrako norabidean. Hizkuntzaren zentzu historikoa eta soziokritikoa borratzera dator erreforma, eta Francoren garaiko inspektore-ek begiratzen zituzten aspektu horiek guztiak balioestera. Ebaluazioak be-rak curriculumak erabat baldintzatzen du.

EAEn LOMCEren hainbat puntu apaldu nahi izan dira akordio bidez; Nafarroako Gobernuak alfonbra gorria jarri dio erreformari. Zertan nabaritu duzue LOMCEren eragina eguneroko lanean? Zer-nolako zuzentarauak jaso dituzue Hezkuntza-Kontseilaritzatik?

Kontseilariak garbi erran zuen *a la navarra* eginen genuela Nafarroan, hau da gelako ikaslerik nabarmenena izan nahi du inplantazioari dagokio-nez, erreformaren buruan jarritz.

Udan, berehalako batean onartu dira dekretuak, alde aurreko formakun-tzarik edo ezartze graduaturik plante-atu gabe.

Egun batetik bertzeraz horretan gaude, eta hori da aplikatu beharreko curriculumak, lehenbiziko, hirugarren eta bosgarren mailatan. Horrek erran nahi du, eskola txikietan, non maila guztietako ikasleak elkarrekin ditu-gun, baditugula LOMCE ikasleak eta ez direnak LOMCE ikasleak. Eta horre-la gabiltza lanean.

Horrekin batera, naturalizatu egi-ten dira erabakiak, hau da, hartu diren erabakiak iduri du ez daudela hartuak. Adibidez, kudeaketarako programen bidez (Educa, Nafarroan) bete-betean sartu zaigu LOMCE. Programa hori za-baltzen duzu orain, eta ebaluaziori da-gozkion datuak edo kudeaketako da-tuak sartu behar dituzunean progra-mak LOMCEren arabera egiteko auke-ra bertzerik ez dizu uzten; ebaluazioak ere LOMCE modura daude antola-tuak... Ez dira eskolaren baitan gelditu diren erabakiak, baizik eta programa hori garatzen duen informatikari tal-dearen esku daudenak dira orain, eta talde horri, noski, agindua eman zaio kudeaketa-programa LOMCEren ara-bera moldatzeko. Irakasleri, beraz, eskola programa horren arabera ku-deatzea beste aukerarik ez zaio geldi-tzen, eta badirudi hori objektiboa dela, ez dagoela atzean erabaki politiko bat, eta ez, ez da horrela. Gauza bera gerta-tzen da editorialekin ere: argialetxeak buru belarri-ibili dira LOMCEra egoki-tzeko eta orain liburuak eskatzen ditu-zunean LOMCEren arabera datoz. Txi-kiak diruditen gauzak dira, baina gure eskuetatik atera dira ordutegiak, ira-kasgaiak, zenbakizko kalifikazioa erabakitze eskumenak.

Ikasgaien hierarkizazioa era aipa-tzekoa da: tronkalak eta hautazkoak iherarkizatzen ditu LOMCEk. Beraz, araudi horren arabera, segun zein ikasgai diren suspenditzen edo gain-ditzen direnak, ikasleak errepikatuko du kurtsoa edo promozionatuko du.

Irakasgaiak iherarkizatzeko erabaki hori ez da inondik inora neutroa: Zer-gatik musikak ez dauka matematika-ren estatusa? Planteamendu entziklo-pedistetara goaz berriro, justuki hezkuntza-zientziek diotenaren kontra-ko planteamenduetara goaz. Hezkuntza-zientziek, eta eredugarriak diren Finlandiakoa bezalako hezkuntza-sistemek, ikuspegi humanistiko batetik planteatzen dute hezkuntza, ikerketa sustatzen da, ikaskuntza metaikas-kuntzara doa, mundua ezagutzera, ikasgaien bitarteko mugak gainditze-ra, proiektuka lan egiten da, interesgu-neak indartzen dira; hemen, berriz, ikasgaien arteko zeharkakotasunera lijoakeen planteamenduaren aurka, ikaskuntza partzelaratzera goaz.

Eskola txikietarako ez dago batere egokitua erreforma. Nola ari zarete kudeatzen ikasgela berean LOMCE ikasleak eta ez-LOMCE ikasleak edukitzea?

Ahal dugun moduan. Tutore batek Lehen Hezkuntzako 1, 2 eta 3. mailako ikasleak ditu. 1 eta 3 mailatan LOMCE ikasleak dira, eta ebaluatu beharreko ikasgai estandar batekin zehazten da curriculum. Irakasleak zuzenean curriculum hori aplikatu behar du, horren arabera ebaluatu eta zabaltzen duenean txostena betetzeko programa, itemak LOMCEren arabera antolatuak datoz. Lehen *Ingurumearen eza-gutza* zena, adibidez, orain *Natur* eta *Gizarte* irakasgaiak dira, lehen mailako eta 3. mailako ikasleekin *Natur* eta *Gizarte* landu behar ditu, ebaluatu eta kalifikatu beharko ditu, eta 2. mailako-ei, berriz, teorian, *Ingurunea* ematen jarraitu beharko luke. Guk badakigu eskola txikiek ez dutela horrela funtzionatzen, denekin aldi berean egiten baitugu lan. Baina gisa horretako paradoxak ditugu egunero-egunero. Dena den, hori Hezkuntza Lege guz-tiekin gertatzen da, ez baitaude eskola txikietarako inondik ere pentsatuak.

Zuzendari gisa, eskola gisa,

hezkuntza-komunitate gisa, zer jarrera hartu duzue LOMCEren aurrean?

Sinbolikoa izan daiteke, baina zuzendaritza talde askok manifestu bat sinatu dugu, orain arte bezala proze-suak modu partehartzailean izango direla bermatuko dugula esanaz, fam-iliekin komunikazioan jarraituko dugula, eta LOMCEk puntu horiek al-da daitezen agintzen duen arren, zu-zendari askok gauzak ez direla aldatu-ko konpromisoa hartu dugu.

Orain arte bezala, informatzen se-gitzeko konpromisoa hartu dugu, kezkak argitzen joatekoa. Bistan da ar-lo pedagogikoari dagokionez, eskola txikietan proiektuka lan egiten dugula eta ez diogula uko egingen horri. Saiatuko gara, orain arte bezala, gure plan-temendu eta komunikazioa modu ho-izontalen egiten, modu dialogiko-an, hurbileko komunitatearekin elka-rrekintzan lanean aritzen, alegia ikas-tetxea eta kalea *continuum* baten mo-duan ulertzen hezkuntzari dagokio-nean, uste dugulako komunikatzea zirkular bat ematetik harago, hartzea, ematea, gozatzea, berrestea, mundu-ra irekitzea, sentitzea, burujabe izatea dela... elkarrizketan oinarritzea bi no-rabidekotasan hori bermatzea dela uste dugu.

Hala ere, irakasle eta guraso asko erreformaren aurka egonagatik ere, legeari aurre egiteko beldur dira eta neurriak onartzen ari dira. Zer egin liteke zure ustez?

Eskolaren egitura erabat bertikal-tzera dator LOMCE, lehen ere guztiz horizontala ez bazen ere. Horren au-rrean beldurra eta ezjakintasuna na-hasten dira, zer eta nola egin ez jakitea; garbi izan behar dugu badirela une oso sinboliko eta esanguratsuak, az-terketak adibidez, baina hezkuntza-komunitateak argi izan behar du hain-beste eragilek sortutako Gure Gida-proposameneko puntu asko eta asko gaur egun egiten ditugula, eta egite hori bera, herri bezala erantzutea dela ikusi behar dugu. Baina nik uste dut

kontzientzia falta dela: herri bezala erantzuten ari garenaren kontzientzia hartu behar dugu.

Gure Gida harturik, gure eskola as-kotan hezkidetzan oinarrituriko ikus-pegi bat jorratzen dela ikusiko genu-ke, edo metodologia aktiboetan dihardugula, zentralitatea gainditze-ko ahalegina egiten dugula, pentsa-mendu kritikoa lantzen dela, inkusi-boa dela, partehartzailea dela... Hori guztia egiten dugula ikustea, herri be-zala LOMCEri erantzutea dela ikusi be-har dugu. Inoiz baino garrantzitsu-a goa da gure indarguneei buruz haus-nartzea eta kontzientzia hartzea: hez-kidetzalea al da gure hezkuntza-plan-teamendua, pentamendu kritiko sus-tatzailea al da? Indargune horiek bis-tan jartzeko unea da, aplikatzen diren lekuetan indartzeko eta aplikatzen ez direnetan aplikatzen hastekoa.

Diozun gisan eguneroko lanean LOMCEekin bat ez datozen praktikak egiten dituzte irakasle eta eskola askok, hezkuntzaren kalitatearen mesedetan.

Are gehiago gisa honetako lege zentralista, uniformatzaile, segrega-tzaile eta atzerakoiak planteaten zaiz-kigunean. Gure herria epe ertain luze batean eraiki nahi badugu orduan eta garrantzitsuagoa da pentsamendu kri-tikoa sustatuko duten planteamen-duak egitea, erantzun bakarrek plan-temenduei uko egingez.

Dena den, honek guztiak sukalde lan bat du atzean: planteamendu neo-liberal eta kapitalista malgu hauen in-teresei erantzuteko eta horiei bakarrik erantzuteko legea da. Beraz, gisa ho-rretako inposaketei erantzun egin be-harko diegu, eta erantzuna nik uste dut egunero ematen dugula: gure ikasgeletan eta eskoletan, aniztasuna-ri, sormenari, performanceari, pentsa-mendu kritikoa, inklusioari etabarri leku egiten diegunean. Emaizta eran-tzun bakarrekoa ezin da izan, pertso-nak anitzak garen bezala, ezagutza be-ra eta mundua bera ere anitza da.



0-3. Hezitzaileen formazioa

Marina MORI, Reggio Emiliako hezitzailea

“Familien presentziaren bitartez, gizarte-zibilaren parte-hartzea indartu behar dugu hezkuntza-zerbitzuetan”

Parte-hartzeari buruzkoa izan zen 0-3 urteko zikloko hezitzaileen formazioko abenduko saioa. Familiek eta komunitateak nola hartzen dute parte eskoletan? Eta eskolak nahiz umeek gizartean? Reggio Emiliako haur-eskoletako esperientzia azalduz erantzun zien Marina Morik galdera horiei. Erretiroa hartu berria bada ere, 40 urte inguru pasa ditu hezkuntzaren munduan lanean; hezitzaile gisa lehenik eta hezitzaileen formatzaile bezala ondoren. Uneotan Reggio-Children erakundearen aritzen da, prestakuntza-saioak ematen munduko toki guztietan.

Parte-hartzea oinarritzko puntua da Reggio Emiliako filosofiaren barnean. Historikoki hala izan da, eta uneotan ere halaxe da. Denborarekin, ordea, kontzeptuak eta horien gaineko ikuspegiak aldatuz joaten dira, eta horrexegatik, Morik saioaren hasieratik argi utzi zuen parte-hartzeaz nahiz gestio sozialaz mintzatzuko zela, baina pentsamendua eguneratuz.

Reggio Emiliako filosofiaz hitz



Marina Morik italiaraz egin zuen azalpena eta Alfredo Hoyuelosek haren itzulpen-lana.

egitean, funtsezko hiru puntu aipatu behar dira, Moriren esanetan: batetik, haurtzaroaren gaineko ikuspegia, haurra gaitasunak dituen izaki bezala hautematen baitute, eta beraz, gaitasun horiek garatzeko testuinguruak aukerak eskaini behar dizkiola uste baitute; bigarrenik, zeregin horretan tailerrek hartzen duten garrantzia; eta azkenik, parte-hartzea, soziala nahiz familiara.

Azken puntuan fokua jarritz, Mo-

rik dio ez dela familien parte-hartzeaz soilik hitz egin behar, baizik eta parte-hartzea modu globalagoan ulertu behar dela: “Gurasoen, irakasleen, haurren, gizarte-eragileen... parte-hartzeaz hitz egin behar da. Kontuan izan behar dugu haurrek eskolan irakasleak zein gurasoak parte hartzen ikusten badituzte, eurak ere potentzialki parte-hartzaileak izango direla”. Reggio Emiliako haur-eskoletan parte-hartzea modu bikoitzean uler-

tzen dute, hau da, partaidetza kontzeptuak bi alderdi dituela esan daiteke: batetik, parte-hartzea hezkuntza-proiektuaren parte da; eta bestetik, parte-hartzea bera proiektu gisa hartzen dute. Loris Malaguzziren esaldi bat gogora ekarriz, Morik gaineratu zuen pertsonak duten eskubiderik garrantzitsuena hezkuntzan parte hartzeko duten eskubidea dela. Eta zer eskatzen du ikuspegi horrek? Lege zuzenak, lanbidearen definizio zehatza eta zerbitzuen eraikuntza egokia. Eta hori Reggioiren historian gizarte mugimenduen fruitu izan da hasieratik.

50 urte hezkuntzan parte hartzen

Reggio Emiliaren historia orain dela 50 urte hasi zen, Bigarren Mundu Gerra amaitu ostean. Hiriak berreraikitzen hasi zirenean, emakume feministen borrokari esker, eskolen eraikuntzari lehentasuna ematen hasi ziren: “Emakume haiek batetik haurren eskubideak eta bestetik emakumeen emantzipaziorako eskubidea kontziliatu nahi izan zituzten”. Eta bi ezauzgarri nagusi oinarri hartuta hasi ziren eskolak sortzen: pluraltasuna batetik eta laikotasuna bestetik.

Hala, 60etan lehen udal eskolak jaio ziren. Orduan ere administrazioarekin borroka gogorak izan zituztela gogoratzen du Morik, udalean oso emakume gutxi baitzeuden garai hartan. Hala, haurren eskolaratzeko zerbitzuak administrazioan lan egiten zuten emakumeen eta partidu politikotara atxikita zeuden emakume feministen arteko elkarlan esutitik sortu ziren. Gerora, heziketaren gaineko eztabaidan gizonak ere parte hartzea lortu zuten, eta ondorioz, tradizionalki arazo femeninoa izan zena —haurren haziera eta heziketa— kontu politiko, hiritar guztien auzi bilakatu zen, eta komunitate lokalak bertako kide gazteenen hezkuntzaren gaineko ardura hartu zuen. “0-6 urtera bideratutako hezkuntza-zerbitzuen sareak zerikusia du emakumearen emantzipazioaren ideiarekin, emakumeak lanera joatea baimentzen baitu. Baina beste alde batetik, ulertzen du haur-eskolen egitekoa hurrek hiritar edo subjektu politiko bezala dituzten eskubideak garatzea dela”. Bide horretan guztian, beste batzuen artean, Malaguzzik oso paper garrantzitsua jokatu zuela dio Morik, pentsamendu soziala eta pentsamendu pedagogikoa

uztartzea, eta hezkuntza eta politika ezindirela banatu eta beti lotuta egon behar dutela ulertaraztea lortu baitzuen.

Hezkuntzaren gaineko adostasun politikoa ezinbestekoa da Reggio Emiliako esperientziak funtziona dezan. Izan ere, proiektuan inplikaturik dauden agente guztien eskubideak bermatu behar dira: haurrenak, familienak eta langileenak. Eta kontziliazio hori sindikatuak, politikoak eta familiak ados jartzea lortzen bada soilik da posible. “Hori ez da erraza gaurko Reggio Emilian, eta kosta egiten da hezkuntza-proiektu hori aurrera eramatea. Are gehiago krisialdi ekonomikoak eztanda egin zuenez geroztik”. Azken urteetan premisa oso garrantzitsu batek indarra hartu duela dio Morik: “Askotan beharra eskubidearekin nahasten dugu. Guztiok jasaten ari garen krisi honekin —ez da soilik krisi ekonomikoa, baizik eta kulturala ere bada— eskubideen alorrean atzera egin dugu. Egunetik egunera gehiago hitz egiten dugu beharrez, eskubideei dagokienez ordea, badirudi gure itxaropenak jaitsi ditugula, ekonomikoki pobretuz, kulturalki ere pobretu egin garelako. Eta kalitate gal-



tze horrek eraman gaitu gutxiagorekin konformatzera. Batzuetan, badi-rudi umeeak behar gutxi dituztela, eta murrizketak arlo horretan ari gara egiten. Reggio Emilian ikusten da hori, baina kulturalki baita mundu osoan ere. Haurren heziketak ari garenean ezin da negoziatu. Oso garrantzitsua da hasieratik tinko mantentzea eta argi edukitzea hezkuntzarako eskubidea dela gizarte batean dagoen eskubiderik garrantzitsuenetarikoa”.

Komunitatearen garrantzia

Hezkuntzari dagokion garrantzia emateko, Moriren aburuz, ezinbestekoa da heziketa komunitate funtzio bezala hautematea, zeinetan familiak parte sentituko diren. Izan ere, familiek proiektu horretan parte hartzen ez badute, komunitate horretako kide sentitzen ez badira, inplikatze beharrik ez badute, komunitate hori ez da haziko, eta ondorioz, haurren garapena ez da osoa izango. “Horrexegatik diot proiektu pedagogikoaren eta didaktikoaren funtsa parte-hartzea dela eta horrela izan behar duela. Testuinguru horretan, guri, profesionaloi dagokigu familiak komunitate horretako kide egitea eta ikusaraztea eurak gabe proiektu pedagogikoak ezin duela aurrera egin”.

Malaguzziren esanak bere egina, Morik gogorarazten du pertsona baten ongizatea guztion ongizatearekin erlazionatuta dagoela zuzenean. Zentzu horretan, politikariek zerbitzuen gainean hartzen dituzten erabakiek kolektibitate oso batengarapenari eragiten diote eta baita komunitate horretako kideen eskubideei ere. “Garrantzitsua da politikariek beharrezko zerbitzuak eskaintzeko eta hiritarren eskubideak bermatzeko ikuspegia izatea. Horrexegatik funtsezkoa da, familien presentziaren bitartez, gizarte zibilaren parte hartzea indartzea hezkuntza zerbitzuetan”.

Urteen joanaren poderioz, Reggio Emiliako familia-ereduak asko aldatu dira, ez dira orain 50 urte hezkuntza-erperientzia guztia martxan jarri zeneko berberak. Moriren iritziz, oso garrantzitsua da familia forma guztiak kontuan izaten eta barne hartzen saiatzea: “Gurasoak hezkuntza-proiektuko kide senti daitezen nola jokatu aztertu behar dugu. Une honean guraso izatea ez da duela 20-30 urte guraso izatea bezalakoa. Orain lehen ez bezalako forma familiarrik daude. Beraz, hezkuntza-dinamika berriak bilatu behar ditugu, ideia berriak eta kontzeptu berriak. Esate baterako, zer esan nahi du gaur egun talde bateko kide izateak? Lehen guztiok ezagutzen ginen, bagenekin bakoitza nor zen, eta hori zen taldeko kide izateko modua. Gaur, aldiz, ‘talde’ kontzeptua aldatu egin da eta horren inguruan ere hausnartu egin behar dugu”. Moriren irudiko, orain guraso taldeez edota haur taldeez hitz egiteak ikuspegi berri bat onartzea esan nahi du, lehengo baino askoz ere sistemikoagoa dena, gaur egun taldeak kulturen hibridazio bat esan nahi baitu, ikuspegi, iritzi, balio eta errealitatearen inguruko ikuspegi desberdinak dituzten pertsonen multzoa.

Reggio Emiliako hezkuntza-proiektuan lanean dihardutenek esperientzia hori posible egiten duten heziketa-balioak zeintzuk diren kontuan izan behar dutela azpimarratzen du Morik, gainontzean familia bakoitzaren eskaera modu indibidualen erantzuten hasiz gero, gerta baitaiteke nola jokatu ez jakitea, eta bakoitzak bere kasa erabakiak hartzea. “Horrexegatik, garrantzia eman behar diegu balio batzuen gainean eraikitako politika publikoei. Bestela beti zalantza beraren aurrean egongo gara: ‘Eskari hauei guztiei erantzun behar diegu gurasoek hala nahi dutelako?’ Erantzuna ezekoa da. Inportantea zirkulo komunikatibo bat eraikitzea da, eta indarra argumentazioan

eta ideietan jartzea, 0-6 urte arteko hezkuntza-zerbitzuak zaintza-zerbitzuak soilik ez direla aldarrikatzeko, eta bizitzaren aurreko ikuspegiaren eraikitzaile eta egituratzaile ere badi-rela defendatzeko”.

Beraz, Reggio Emiliako esperientzian ulertzen dutenez, parte-hartzeak proiektuaren beharra du, eta proiektuaren parte izanaz proiektatzen da. Morik esplikaturako eran, proiektu horren zentroan umeak, irakasleak eta familiak daude, eta eskola hori atsegina, langilea, sortzailea eta bertan bizitzeko modukoa da; dokumentatua dago, komunikatiboa da eta ikaskuntzarako, hausnarketarako, elkarriketarako nahiz metagogetarako tokia ere bada. Zentzu horretan, Morik nabarmentzen du parte-hartzea ezin dela soilik gurasoen kontua izan, baizik eta hezitzaileen lanean txertatuta egon behar dela, eurek ere parte-hartzearen garrantzia barnera dezaten eta proiektuaren parte senti daitezen. “Aukerarik ez dagoen beharko genituzke guraso guztiek arrazoiren bat aurki dezaten eskolaren barnean egoteko. Funtsezkoa da komunikazio forma berriak kontuan izatea—Internet, mugikorra, tableta...—, horiek ere ikuspegia eta komunikatzeko modua aldatzen baitute. Azken batean, guraso bakoitzak arrazoi bat bilatu behar du eskolaren parte izateko. Gurasoari esan behar zaio ezinbestekoa dela eskolan eta hezkuntza-proiektuan. Gurasoak ulertu behar du nik bere beharra dudala, ez alderantziz, berak nire. Nahiz eta amaieran guztia zirkularitate bilakatzen den, non behar hori bata bestearikoa den”. Reggio Emilian parte-hartzerako ez dago ordutegi hertsirik, eurentzat inportatea ez baita noiz eta nola parte hartzen den, baizik eta parte-hartzea egotea da garrantzitsua. Horrexegatik, malgutasunez jokatzeko dute, gurasoei—haien ordutegiaren eta beharren arabera— parte hartzeko ahalik eta aukerarik egokienak eskaintzeko.

‘Gela gorria’: Matisse eta uda

Ez zait erraza gertatzen proiektu bat hastea, nahiz eta era horretan lan egiten denbora dezente eraman. Proiektuak artista konkretu batekin edo artista batek egindako lan batekin lotura zuzena duenean, zailtasunak korapilatu egiten dira.

Amaia DIAZ DE DURANA
DEUSTUKO IKASTOLAKO IRAKASLEA

Noiz hasi? Zeri eman garrantzi handiagoa? Nola lotu eskolen eritmoari? Nola lortu umeen arreta eta gogoia? Nola antolatu? Nola egin benetako hurbilketa bat, Haur Hezkuntzaren



mamia galdu barik? Zer baliabide erabili, eta nola antolatu?...

Horrelakoxe galderak sortzen dira nire buruan, baina, poliki-poliki, ideiak bata besteari lotzen hasten dira,

eta, egunak aurrera doazen neurrian, beren lekua hartuko dute, lehenengo nire buruan eta, beranduago, papelean.

Proiektua bera aurrera doan neurrian, lepoan eskegita sentitzen dut, lepoko berezi bat balitz bezala: umeen aurrean artistari buruz hitz egiten dudanean, haien begiraden distirak itsasten zaizkio nire lepokoari, eta prest dago dena: baliabideak, ideiak, gogoia, indarrak, maitasuna... Has gaitetzen!

Eta, orain, hobeto pentsatuta, non kokatu behar dut Maiteseren Gela gorria, edota hasieran egindako *Jazz* saileko lanak?

Maiteseren *Gela gorria* lanean oinarritutako proiektu hau lau urteko gelan egin da lehen hilabetean. Baina noiz hasi zen? Non daude ideia-aren sustraiak? Bi urteko gelan, *Artearen Eguneko* saioetan, agian?

Gai hori lantzeko, pinturaren arteari leku txiki eta goxo bat ematen dio-



gu asteko egun batean, ikasgelako programazioan. Une horretan, goxogoxo gailera edo fruta zati bat eskuartean dugularik, hainbat artistaren liburuetan agertzen diren irudiei begiratzen diegu, eta, poliki-poliki, azterzen hasten gara.

Askotan, harridurarekin batera, barreak ere sortzen dira, eta umeen arteko elkarrizketak ere bai:

- Zer da hori?

- A! Zein polita!

- Hara! Zenbat kolore!

- Ba, zenbat kolore? Itsusia da! Ez, ez da itsusia...

Horrelaxe pasatzen dira pinturaren artearekin harremanetan hasten diren lehen une horiek.

Denboraren poderioz, ohitura bihurtzen da horrelako gertaerak ikustea. Guztiz barneratuta daude ikasgelaren erritmoan, eta, gelako umeen izenekin batera, artista batzuen izenak ikasten hasten dira: Monet, Picasso, Andy Warhol...

Hiru urteko gelan hasten garenetik, *Artearen Egunaren* zain egoten dira gogo biziz, eta, lasaitasunez, bi urtekoen gelan ikusitakoei eta beste berri batzuei begiratzen eta behatzen hasten gara.

Horietako egun batean, biribilean geundelarik, Henry Matisseri buruzko liburu bat ikusten hasi ginen.

Ikaragarriak iruditu zitzaizkien Henry Matissek egindako lan batzuk. Koloreekin eta formekin liluratuta zeuden.

Lehen urratsa

Hantxe hasi zen, orain dela hilabete asko.

Bigarren urratsa

Nire oporretan kokatzen da. Urtero, udan, abuztu aldean, posta-txartel bana bidaltzen diet beti umei, Haur Hezkuntzan gela batetik bestera pasa-

tuko direla kontuan hartuta. Ezinbestekoa iruditzen zait nik umeekiko ditudan harremanei eta haiek ikastolarekiko dituztenei eustea.

Azken oporretan, Londresko Tate Modern museoan nengoelarik, hantxe ikusi nituen, nire aurrean, Matisseren *Jazz* bildumako irudiak, eta orduan sortu zen nire buruan bigarren urrats horretarako ideia: hiru urteko gelatik lau urteko gelara pasatzean, umei Matisseren koadro bat agertzen zen posta-txartel bana bidaltzea.

Une horretan, umeentzat posta-txartelak aukeratzen ari nintzen bitartean, Matissek leku bat hartu zuen nire buruan, eta eroso jesarri zen, iraila iritsi zen arte.

Hirugarren urratsa

Ikasturte-hasierarekin batera heldu zen.

Irailan, gelara heltzen garenean, gurekin batera datoz gure udako oroi-menak. Itsasoaren lurrina eta mendiko soinuk arropan itsatsita ekartzen ditugu. Buruan oraindik biraka darabiltzagu egin ditugun gauzak, eta, jakina, ikasgelako elkarrizketak opor-egunetako gertaerez josita daude.

Eta, horrela, astelehen batean, *Ar-*



tearen Egunean, hiru urteko gelan ikusitako obra batzuk berrikustean, hantxe agertu zen nire eskuartean umei begira: *Gela gorria*. Eta, horren ondotik, nire buruan bueltaka zebilen galdera horrek, ia konturatu gabe,

ateratzeko bidea aurkitu zuen.

Gustuko duzue hau, ezta? Zer iruditzen zaizue denon artean berriro egiten saiatzen bagara? Baina zer dago hemen? Frutak? Frutaontziak? Gauza horiek jarri beharrean, zer jar ditzakegu? Ba al du inork ideiarene bat? Badakigu ondo umeak parte hartzeko beti prest daudela eta denen artean ideiak barra-barra sortzen dituztela.

- Eta gu, andereño? Jarriko al gara gu?

- Ados. Orduan, gure gela *Gela gorria* izango da, aldaketa batzuk eginez, noski.





Laugarren urratsa

Bizi izandako uda eta gure gela gorri berria lotzeko asmoz, udan ateratako argazki bat ekarri zuen ume bakoitzak, eta, hari begira, argazkian agertzen zena marrazten saiatu zen. Arau bakarra bete behar zuten: ezin zuten beren burua marraztu, argazkia aterako genuelako.

Eta horretantxe aritu ziren poliki-poliki.

Bitartean, biribilaren unean, margolana bera aztertzen genuen: koloreak, formak, agertzen zena eta agertzen ez zena. Koadroan bertan zeuden leihotik ikusten zena eta ikusten ez zena.



Bosgarren urratsa

Argazkiekin egindako lan guztiak edukita, margoa bera egiten hasi ziren. Batzuek hondoa gorri-gorritz margotzen zuten bitartean, agertzen ziren formak eta marrazkiak kopiatzen saiatu ziren beste batzuk. Andereñoak ere parte hartu zuen horretan, gure gela zelako eta, gela horretan, jakina, andereñoa ere bazegoelako.

Ez da nahikoa figurak barrutik marraztea; margotu ere egin behar dira; irudia nabarmendu eta, gero, kokatu.

Seigarren urratsa

Egindakoa ikusi genuen. Eta soilik margolaneko leihoan agertzen zena falta zitzaigula jabetu ginen. Eztabaida sortu zen:

- Zer jarriko dugu hemen? Koadroan bertan agertzen dena, ala beste gauzaren bat?

Erantzunak askotarikoak izan ziren:

- Jarri txakur bat!

- Ez, krokodiloa!

- Ez, hobeto gure ikastola! -esan zuen batek.

- Bai, baina, nire etxetik natorrenean, ikastola ez da ondo ikusten, zuhaitz altuak daudelako -beste batzuk.

- Bada, dena jarriko dugu, andereño, dena jarriko dugu.

Bai batek poztasuna ekarri zuen, eta berriro pentsatzen hasia: zer koloretakoa da gure ikastola kanpotik? Nolakoa da? Eta haren ondoan dauden zuhaitzak?

Azkenean, erabakia hartu zen, eta hantxe agertu zen: gure *Gela gorritik* ikastola ikusten zen, barruan eta kanpoan aldi berean. Zelako magia!

Biribilaren unean, koadroari buruz hitz egitean, Matisseren garaietako gauza batzuk ere ikasi genituen: non bizi zen, nolakoak ziren garai hartako bizikletak, zer erabiltzen zuen margotzeko... Horrek guztiak bere isla izan zuen ume bakoitzak egindako liburuxkan.

Dena amaituta zegoen, baina, bidalitako posta-txartelak berrikustean, galdera bat sortu zen: nola egin zuen hori Matissek? Hori ez al dago margotuta? Badakizue nola egin zuen? Bada, moztuz eta itsatsiz.

Honen ostean, jazz-interpretazioa etorri zen. Umeak kolore askotako formak mozten eta itsasten hasi ziren. Matisseren lanak egin ditugun bitartean, giro koloretsu eta indartsua izan dugu gure gelan. Denek parte hartu nahi izan dute. Denak saiatu dira, denek artista izan nahi dute eta.

Gerora, egindako lana ikastolako harrera-aretoan jarri genuen, eta, on-

doan, argazkiak atera genituen.

Egun horretan etxera nindoala, proiektuak jarritako lepokoa leun eta eder sentitu nuen, lepoko hura ondo lotzeko osagarri berezi bat gehitu zitzaion eta. ●



Ikastolen adierazpena:

Hezkuntza, legeez eta bidez

Ikastolen Elkarteak aurten antolatutako Hezkuntza, legeez eta bidez topaketen barruan, ikastolek adierazpen publikoa egin dute, bidean egon litekeen Araba, Bizkai eta Gipuzkoarako Hezkuntza Legeari begira, eta, indarra titulartasunean jarri beharrean, denon partaidetzarekin helburu orokorrak bideratzea proposatu dute, zerbitzu publiko gisa antolaturik. Ikastolen Elkarteako lehendakari Koldo Tellituk eta zuzendari Imanol Igeregik eman dute ezagutzera. Hauxe da, ikastolen adierazpena:

Hezkuntza, legeez eta bidez

Asaldura handiko giroa bizi dugu Hezkuntzan; mehatxu, erronka eta aukeraz betea, gizartean, oro har, hainbat faktorek eraginda bizi dugun bezalaxe, baina Hezkuntza munduan ezaugarri propioekin. Euskal Herriko Ikastoloi biderkatuta datozkigu mehatxu eta erronkak, administratiboki lau puskatan zatituta daukagun lurraldean sare-tuta gaudenez.

LOMCE eta Falloux legeei aurre egin beharrean gaude, gure hezkuntza-sistemari zuzenean erasotzen dioten bi mehatxu handi baitira. Euskarazko testuliburuaren sorgin-ehiza abiatu duen Nafarroako Gobernuarenekin ere hor dugu; eta baita Euskararen Legean iraga-



Ikastolen Elkartearen jardunaldietan aurkeztu zuten adierazpena.

ritako aldaketa ere. Azkenik, Heziberri 2020 ere hor dugu, Araba, Bizkai eta Gipuzkoarako hezkuntza berritzeko Eusko Jaurlaritzaren egitasmoa.

Aukera, erronka eta mehatxu horien aurrean aldarrikatu dugu, gure izaeraren ardatz den gisan, Hezkuntza Sistema propioa behar dugula Euskal Herriko, horrek bakarrik ziurtatuko digulako gure ikasleen, gure seme-alaben hezkuntza euskalduna, eleaniztuna, euskal curriculumean eta konpetentzietan oinarritua, teknologia berrietan trebatua, kalitatezkoa eta ekitatiboa.

Xede hori eskuratzea une honetan ezinezkoa bada ere, urratsak egin behar dira Hezkuntza Sistema propio-rantz, eta egun badugu horretarako aukera, Araba, Bizkai eta Gipuzkoara mu-

gatuta egon arren. Hezkuntza Legeaz ari gara. Eusko Jaurlaritzak Heziberri 2020 egitasmoan aurreikusten du, eta lege baten beharra azpimarratu dute alderdi politiko nagusiek ere.

Mehatxu, erronka eta aukera horien aurrean erantzukizunez jokatzeko dagokigu hezkuntza-munduan gabiltzan guztioi. Ez baita dagoeneko hezkuntza-alorrean gabiltzanonek eskaera bakarrik; gizarteak eskatzen digu.

Nora jo, zer egin, norantz bideratu Hezkuntza Sistema propioa lortze aldera, datozen urteetan?

Testuinguru honetan Euskal Herriak, herri txikia izanik, aurrera egin nahi baldin badu, hezkuntza-hobekuntza aurrerabide, berrikuntza, geroa eta balio erantsi bihurtzen da, benetako

lehengai, herri honen inbertsiorik hobereetakoa. Bistan da, inoiz baino gehiago, hezkuntzak lehentasuna izan beharko duela.

Alderdi politikoez eta hezkuntza-alarreko hainbat eragilek Eskola Itun eta Hezkuntza Lege berrien beharra adierazi dugu, behin baino gehiagotan.

Lege baten beharra azpimarratzen dugunean, zio hauetan oinarritzen dugu aldarrikapena:

- Gure gizartearen egituraketak, beste arloetan gertatzen den bezala, Hezkuntza Legearen beharra du.

- Une honetan, sistemako ikastetxe erdiek baino ez daukate lege baten babes.

- Lege baten egikerak, eskatzen dituen prozesuak eta hausnarketak, hezkuntza-arloko epe ertaineko helburuen eta lehentasunen definizioa argitzen lagunduko luke. Beste esparru batzuetako esperientziak erakutsi bezala, legearen erreferentzia ezinbestekoa izaten da hezkuntza-arloko helburuak eta neurriak planifikatu eta garatzera-koan.

- Hemen egindako lege batek, bide batez, kanpotik datozen lege atzerakoi eta zentralistei aurre egiteko edo, gutxienez, haien eragina minimizatzekeo balibideak eman ahal dizkigu. Zehazki, LOMCeri aurre egiteko tresnak eman ahal dizkigu.

Jakin badakigu lege batek, berez, ez dituela arazo guztiak konponduko, ez eta gai guztiak bideratuko ere; baina hezkuntzaren eremuko iparra definitzeko erabat lagungarria izan daitekeelakoan gaude. Adostasun zabalaren gainean eraikitako sistema batek aldaketa sakon eta erreala uste baino arinago eragin dezakeela uste dugu. Beraz, Eusko Jaurlaritzari eta Hezkuntza Sailari hezkuntza-lege bati ateak zabalduko dizkion prozesua lehenbailehen abian jar dezaten eskatzen diegu. Heziberri

2020 proiektuaren hirugarren egitasmoa, legearena, hain zuzen, lehentasunez bultzatu beharko lukete. Hobe gaur, bihar baino.

Aipatutako legeak eta bere baitan bilduko lituzkeen edukiek, Hezkuntza Sistema propio baterako atea zabaltzeaz gain, bereziki helburu eta lehentasun hauei erantzun beharko lieketela uste dugu, sendotasun osoz:

1. Titulartasuna gorabehera, zerbitzu publikoaren arabera hezkuntza-eskubidea gauzatzea eta garatzea, kontuan izanik hezkuntza eskubide unibertsala dela eta, beraz, euskal herritar guztion oinarritzko eskubidea, euskal gizartearen kohesioa sustatzeko eta gizarte-desberdintasunak gainditzeko lanabesa.

2. Euskara ardatz duen elebitasun erreala eta eleaniztasuna bideratzea, Europako Erreferentzia Markoak proposatzen duen hizkuntzen lorpen-maila erreferentziatzen hartuta eta eskola bakoitzak bere hizkuntza-errealiterako egokituta.

3. Konpetentzietan oinarrituriko euskal curriculumaren dimentsioa uztartu eta bermatu beharko lituzke Hezkuntza Sistemak.

4. Aukera-berdintasuna eta gizarte-kohesioa garatzearekin batera, ikasle guztien eskola-errendimenduaren hobekuntza. Hots, bikaintasuna helburu izan behar dugu Hezkuntza Sistemaren, horrek ikasle guztiengan eta ikastetxe guztietan eragin positiboa baitu.

5. Irakasle-jarduera eta funtzio berrituaren eraketa, irakasleriaren hasierako eta etengabeko prestakuntza eta irakasle-eskakizuna berrituz, hezkuntzako eta kudeaketako lidergoa ikastetxeetan sustatuz eta irakasle-jardunaren ebaluazioa eta banakako zein taldeko aitortza eginez. Eta, gorago aipatutako zerbitzu publikoaren definizioa aintzat hartuta, egoki deritzogu zerbitzu

publikoa osatuko luketen ikastetxe guztietako profesionalen lan-baldintzak analogia-irizpideen bidez homologatuz joateari.

6. Hezkuntza Sistemaren eta bertan diharduen ikasleriaren beharrei bidezko erantzuna emateko, ezinbesteko josten dugu hezkuntza-baliabideen banaketa ekitatiboagoa egitea. Ez dago ikasleen beharrei ekitatez erantzuterik, baliabideen banaketa ez bada bidezkoa. Halaber, ikastolok behin baino gehiagotan aldarrikatu dugu, gu gauden eskola-eremu bakoitzean, edozein beharrian bereziko ikasleen eskolatzeko gure matrikulazio-tasaren neurriko konpromisoa hartzeko prest gaudela.

Topaketa hauetan, zerbitzu publikoaren ezaugarri buruz jardun dugu. Adierazpen honetan, beraz, garapen handiagoa eman nahi izan diogu ezaugarri honen definizioari, alegia: nola ulertzen dugun Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoa, hots, Euskal Hezkuntza Zerbitzu publiko den aldetik. Bestalde, aztergai izan dugu lege batera eraman lezakeen prozesua.

Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoa

Arestian esan dugu hezkuntza zerbitzu publikoa dela, eta, eskubide unibertsala eta, beraz, euskal herritar guztion oinarritzko eskubidea izanik, euskal gizartearen kohesioa sustatzeko eta desberdintasun sozialak gainditzeko lanabesa dugula.

Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoa ikuspegi publiko herritarrean kokatzen dugu, hots, komunitateari lotuta ikusten dugu, hezkuntzan ere demokratizazioa parte-hartzailea gauzatu nahi baitugu.

Euskal gizartearen, hainbat titulartasun motatako ikastetxeak daude. Aldiz, Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikora

bildu ahal izango dira funts publikoekin hornituriko ikastetxeak, hots, ikastetxe publikoak, ikastolak eta itunpeko ikastetxeak, bakoitzaren nortasunari eutsita, eta hezkuntza-zerbitzuaren ezaugarriak beteko dituzte, eta ikasle guztien hezkuntza-eskubidea bermatu dute, inolako bazterkeriarik gabe.

Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoan, erantzukizun kolektiboa eta gizartearen partaidetza nabarmendu nahi ditugu. Alde batetik, zerbitzuaren planifikazioa, kontrola eta ebaluazioa administrazio publikoaren ardurapean egongo dira. Bestetik, zerbitzuaren diseinua, antolaketa, kudeaketa eta garapena botere publikoei eta hezkuntza-komunitateari egokituko zaizkie.

Horren arabera, Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoa gauzatzeko, botere publikoei eta herritarrei (hezkuntza-komunitateari) dagozkien eskumenak zehaztuko eta banatuko dira. Finantzaketa eta kontrolak, berriz, publikoak izango dira, berorren kudeaketa eraginkortasunean, gardentasunean eta kontrol sozialean oinarrituko baita.

Ikastetxeen autonomia, nortasun instituzionala eta kudeaketa bermatzeko, ikastetxeen eta botere publikoen arteko harremanak hitzarmenetan oinarrituko dira, askotariko titulartasun-ereduen osagarritasuna, aldean nortasuna eta ezaugarriak zainduta.

Gizarte aurreratu eta moderno batean, herri-ekimena, hots, titulartasun soziala, ausardiaz sustatu behar da. Ikastetxeen hezkuntza-proiektuak hezkuntza-komunitate osoarena izan behar du (gurasoak, langileak, ikasleak eta tokian tokiko beste eragile batzuk), estamentu bakoitzak adostasunez proiektuan parte hartzen duen heinean zehaztuta. Demokrazia parte-hartzailea (ez bakarrik formala) zerbitzu publikoaren kalitatearen bermea da, zerbitzu publikoaren antolamendurako gil-



tzarri. Aurreko ezaugarri guztiak betetzen dituelakoan, aukeran herri-onurako kooperatiba hobesten dugu.

Demokratikoki kudeatutakoa izan behar du. Ikastetxeen hezkuntza-proiektuaren jabe hezkuntza-komunitate osoak izan behar badu, logikoki, haien kudeaketa partaidetzan eta demokrazian oinarritu beharko ditugu. Barrura begira, eskola osatzen duten estamentu guztien titulartasun partekatua bultzatu nahi dugu, betiere, estamentuen erantzukizun eta ardura-banaketa adostuan oinarrituta. Kanpora begira, berriz, horrelako planteamendu batek administrazio publikoaren eta eskola-komunitatearen arteko deliberamendu elkartua adierazten du, erabakiak hartu eta gauzatzeko.

Gogoetagai uzten dugu, era berean, udalek kudeaketa-arlo honetan izan behar duten parte-hartzea, gure ikuspegitik, zerbitzu publiko baten egituraren protagonismo handiagoa hartu behar bailukete udalek. Partaidetza horrek zerbitzuari gertutasuna eta aberastasuna emango lizkioke, herritarren beharraz ondoen jabetzen den erakundea horixe baita.

Legerako ibilbidea eta ikastolen konpromisoak

Honelako prozesu bat abian jarri gero, prest gaude ondorengo konpro-

misoak hartzeko, ordezkatzeko ditugun ikastolen izenean:

- Ikastolok eskola-akordio zabal eta ireki baten partaide izan nahi dugu, begi-bistakoa baita horren beharrezana euskal gizartearen egoeran.

- Partaidetzarako jarrera erakusten dugunean, partaidetza aktibo eta eraginkorra eskatzen dugu. Era berean, erantzukizunez eta adostasunaren alde jokatzeko konpromisoa azaltzen dugu.

- Eskola-akordioaren abiapuntua norberaren hezkuntza-eredua izango denez, guk geurea aurkezten dugu eztabaidarako ekarpen modura, eta, proiektu partekatu baten garapenean, gurearen aitortza eskatzen dugu.

Urrats berriak, bestalde, adostasun zabalaren testuinguruan egin behar dira, iraunkorrak izan daitezzen. Hezkuntzak antolakuntza eta planifikazio egonkorra behar ditu, emaitza egokiak eskuratu ahal izateko, gobernuak aldatzen diren bakoitzean epe laburreko joan-etorrietan ibili gabe.

Azkenik, hezkuntza-alorreko talde, sindikatu eta alderdi politikoei partaidetza hauetan jokatzeko eskatzen diegu, eta, era berean, prest gaude akordio zabalak eta eraginkorra lortzeko behar bezalako arduraz, erantzukizunez eta malgutasunez jarduteko. ●

Bilbo, 2015eko azaroa
EUSKAL HERRIKO IKASTOLAK

Urte biko gelan zein funtzio bete dezake pentsalekuak? Beharrezkoa al da



Azken urteotan, asko aldatu dira eskolako zigorrak. Atzetik aurrera eginez, batxilergoan, esate baterako, inor gaizki portatzen zenean, gelatik kanpora botatzen zuen irakasleak, duela hamarkada gutxi arte. Bat-batean irakasleak agindua ematen zuen, eta gutako batek, sarritan zaratatsuenak, oldarkorrenak edo atzeratuenak, ezinbestean korridorera irten behar izaten zuen, irakasle horren eskola amaitu arte, edo, haserrealdia irabera, denbora luzeago batez: astebetetz, hamabost egunez... Batek daki gero korridorean zer egiten zuen kanporatuak, baina horrek ez zuen ardura. Kontua begi-bistatik kentzea zen, mugak argi uztea, eskolarekin aurrera egitearekin batera, edota, inoiz, gelako egoera gero eta zatarragoa bihur zedin ekiditea. Arazoa amaitu egiten zen, tarte baterako behintzat. Zigorra pairatzen zuena, aldiz, gelatik kanporatua izateagatik, kontrajarritako sentimenduek astinduta irteten zen korridorera. Gelakideen aurrean, batzuetan harro eta besteetan errudun sentituko zen; eta bere baitan



Karmele ARTETXE

BILBOKO IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA

amorrua, ezintasuna edo mendekusentimendua izango zituen, eta, gehienetan, irakasleak mota bitxi bateko gizasemea edo alaba izan behar zuela pentsatuko zuen, hura horrela tratatzeko.

Ia XX. mende osoan, maisu-maistrek eskolan zigor fisikoak erabili zituzten, asmo desberdina bazuten ere. 1987. urtean, testuinguru soziopolitiko berrian, legez debekatu ziren zigor fisi-



Elena HERRAN

BILBOKO IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA

koak eskolan Hego Euskal Herrian. Ordura arte, jendartearen onartuta eta legez babestuta egon zen irakasleak eskuz azpian edo ipurdi-masailan eskuz edo erregelaz jotzea. Baina hori guztia ia-ia egun batetik bestera amaitu zen. Ez, aldiz, besteen aurrean lotsaraztea, baztertzea, errieta egitea, eta hainbeste zigor era sotil egitea. Hala ere, batxilergoarekin alderatuta, bazen alde nabarmen bat: zigor berriekin, gela barruan

mantentzen gintuzten, edo guztien aurrean lotsagarrien suertatzeko edo, bestela, txokorik baztertuenean hormari begira, gelari eta bereziki gelakideei bizkarra emanda, besteek egiten zutena ikusi ezin izateko. Eta, horren gainean, saihestu ezineko irakaslearen begirada sorbaldan. Gehienetan, gainera, ahazturik ditugula uste izaten dugu, baina bai zera! Edonork aipatzen dituenean edo bere txikitako bizipenez hasten denean, berehala animatzen da giroa.

Urteek aurrera egin ahala, eskolako zigorren joera aldatzen joan da, baina sorrarazitako minari eutsi egin zaio, edo, oraingo baldintzen arabera, hein batean areagotu egin da min hori. Joera aldatzearen kontua ezinbestean etorri zaio eskolari, hainbeste arlotan izan diren hobekuntzen ondorioz eta egungo gizartearen betebeharren aginduetara egokitu behar izan duenez. Hortxe kokatzen dugu gure hausnarketaren testuingurua, eskolatzeko goiztiarrean, hain zuzen, zeren, urte bikoien gelak Haur Hezkuntzako lehen zikloari dagozkio, nahiz eta eskola gehienetan —zentzu zabalean ikastetxe pribatuak, itunpekoak, publikoak zein ikastolak— Haur Hezkuntzako bigarren zikloari (3-6 urte) atxikita egon. Berrirori, krisi ekonomikoak eta hezkuntza sistemaren berantolatetarako ekarri dituzte gurera urte biko lehen gelak. Beren kide naturalekin batera egon beharrean, hau da, 0-1 eta 1-2koen gelakoekin, ume nagusien eskolan kokatzen dira.

Testuinguru honetan, ez da harritzekoa maisu-maistrek, sarri askotan gehiegi pentsatu barik, umetxoa edo ume txikia ume koskorra balitz bezala tratatzea. Urte bikoien gela Haur Hezkuntzako lehen zikloan egonda ere, irakasleek bigarren zikloa eta are Lehen Hezkuntza ere dituzte buruan. Adibidez, hezitzaile batek honako hau esan zigun behin: “Pentsalekua ez dugu asko erabiltzen urte biko gelan. Gainera, helburua ez da erabiltzea, umeak hartara ohitzea baizik, ondorego mailetan erabiltzen delako”. Hori guztia eskolan gaudelako gertatzen da. Eskolak

irabazten du behin eta berriz, Haur Eskola izena edukita ere. Haurrak galdu, eskolaren alde. Gure ereduaren ardatza eskola da, instrukzioa, ahal den azkarren irakatsi behar duena; ahal den azkarren ikas dezala umeak, ahal den gehien... lehen haurtzaroan horrela egin behar ez den arren, ez alferrikakoa delako, baizik eta erabat kaltegarria delako. Beste adibide bat jarriko dugu. Urte biko umeak eskolan hastean, egokitzapen-garai labur bat dute, bi aste eskasekoa. Irakasle batzuek, askotan, ahal beste murrizten dute gainera, ustez luzamendutan ibiltzeak kaltea dakarrelako. Hainbeste aldiz irakurri dugunaren arabera, ume guztiak berdinak ez badira, noiz hasiko gara egokitzapen luzeagoetarako aukeretan pentsatzen? Zernahi gisaz, ahalik eta azkarren egiten den egokitzapenerako lasterketa horren ondoren, oraindik egokitu gabeko urte biko umeek eskolan negar egiten dute sarritan. Kasu horietan, jakin badakigu pentsalekuan bukatzeko aukera dutela, “lasaitu” daitezten. Zergatik bidali umea pentsalekura lasaitzera? Ohitzeko da? Edo zigortzeko? Ume txiki azkarrek, ezinbestean pentsalekura joan eta berehala, ez dute etxean aipatu ere egiten. Gertatutakoaz ohartzeko denbora behar da. Umea zerbait esatera animatzen denerako, andereñoa erabat ahaztu da bertaratzearen arrazoiaz. Beraz, ez da kontrajarritako bi erritmo dituztela soilik; aitzitik, batentzat hutsala dena bestearentzat benetan esperientzia lazarria da.

Izan ere, ume txiki batek ez du ulertzen eskolan irakasten zaion gehiena. Baina hori ez da arazorik kezkarria; denboraren poderioz, horrekin batera, hainbeste gauz gutxi gorabehera eta errepikapenaren bitartez jabetzen doazen heinean, zera ikasten dute: leku horretan ulertzea ezinezkoa dela; egiteko era bat, bakarra eta zuzena, egon badago ere, asmaezina suertatzen zaio; helduaren umoreak den dena baldintzatzen du, eta, ezinbestekoa da igartzea, gehienetan zaila edota ezinezkoa bada ere...

Zer ikasten du urte biko ume batek

Oraindik egokitu gabeko urte biko umeek eskolan negar egiten dute sarritan. Kasu horietan, jakin badakigu pentsalekuan bukatzeko aukera dutela, “lasaitu” daitezten. Zergatik bidali umea pentsalekura lasaitzera? Ohitzeko da? Edo zigortzeko?



bere irakasleak pentsalekura bidaltzen duenean, lehenengoz behintzat? Oso larria den zerbait egin duela, onartezina edo andereñoaren gustukoa ez den zerbait. Eta, intentziorik gabeko hankasartzea izan bada ere, beti ordaindu behar dela ezinbestean. Horrekin batera, bazterketak sorrarazten dizkion zirrarak daude hor, inorekin partekatu ezinean, larritasun bihurtzera kondenatuta mugagabeko denbora horretan. Eta zer gehiago ikasten du? Arrazoia erabat erlatibo da. Ez dago asmatzerik zer egin daitekeen eta zer ez, zeren, beste batzuetan, horixe bera egin arren, ez da ezer gertatzen. Garrantzitsuena ez ikusia izatea da, badaezpada. Besterik? Bada, denborari dagokionez, mundua bertan geratzen da, eta berrirori ere martxan jartzea ez dago norberaren esku, baizik eta irakaslearen esku. Horrez gain, espazio batek “bizitza propioa” eduki dezake, zeren, “pentsatu” egiten da espazio horretan, pentsamenduz jositako lekua delako edo antzeko zerbait; eta hark ez baditu aurkitzen pentsamendu biribil horiek, seguruenik bere ezintasunarengatik dela sentituko du. Eta, gero, ume txikiaren ezaugarrietarako bat, eta ez helduon pentsamenduarena, animismoa dela ikasiko dugu Piagetengandik!

Maisu-maistrek umeak egin duenaren gainean hausnar dezan pentsalekua erabiltzen

badute ere, bi urteko umeak horretan ez du pentsatzen.



Ezin duelako, ez nahi ez duelako. Umeak bizi eta sentitu egiten du egoera, baina ez du irakasleak nahi izango lukeen ideien gaineko gogoeta egiten

Bigarrenetik aurrera, ikasgaiak gero eta argiagoak izango dira. Aurrekoaz gain, zigorra amaitzea hauraren esku ez badago, entretenitzeko formak aurkitzea bai, egon badaude eta. Irakasleak zigorraren bitartez ikaslearen jarrera aldatu nahi zuen, baina guztiz kontra-koa indartu dezake: umeak denbora galtzea, arretak hegan egitea, eta abar. Andereñoaren eguna oso garrantzitsua dela ikusiko du, horrela edo hala portatzeko aldarteak adieraziko duenez, eta haren bistatik at egonda egin beharko dela benetan interesatzen zaiona, badaezpada. Aurrean, ezta burutik egonda ere. Eta, nahi izanez gero, eta nahi izango du gehienetan giro horretan helduak hainbesteko garrantzia emanda, pizgarri bihurtzen du dena delako jardun ezkutu hori, eta, horrela, bide eta era isilak ezagutzera, asmatzera eta garatzera edota menderatzera ere iritsiko da. Eskola ez da lehen urteetatik curriculum inplizitua, esplizitua?

Pentsalekua erabiltzeak, zigorra den heinean, umearen heteronomia areagotzen du. Benetan umea autonomo egiten joan dadin nahi badugu, egindakoaren inguruan iritziak trukatu behar ditugu berarekin, benetan pentsatzeko eta bere ikuspegia ez den besteenaz ohartzeko. Ume autonomoak,

orduan, pentsalekuaren gaineko kontzientzia hartzen duenean, hilabeteak tarteko betiere, has daiteke galdezka etxean edota etxekoekin. Galderak benetan biribil-biribilak dira: “ama, zer da pentsalekua?”, edo “zer pentsatzen da pentsalekuan?”, edo oraindik biribila-goa: “zer pentsatu behar da pentsalekuan?”... Ez dago erantzun errazik, batez ere irakaskuntzan gabiltzanontzat, zeren, pentsalekuan ez da ezer berezirik pentsatzen. Maisu-maistrek umeak egin duenaren gainean hausnar dezan pentsalekua erabiltzen badute ere, bi urteko umeak horretan ez du pentsatzen. Ezin duelako, ez nahi ez duelako. Umeak bizi eta sentitu egiten du egoera, baina ez du irakasleak nahi izango lukeen pentsamendu edo ideien gaineko gogoeta egiten. Alde horretatik, umeak pentsalekuan ez du pentsatzen, erre edo egosi egiten da, hasieran aipatutako heteronomiari ateak zabalduz.

Zigorrek zein sariak —zorionak edo txaloak jasotzeak, musuka hasteak, eta abar— helduarenganako dependentsia indartzen du. Bigarren haurtzaroran, zigorrak hiru ondorio nagusi ditu: arriskuen kalkulua, konformismoa eta matxinada. Arriskuen kalkulua araberak, aurretiaz aipatutakoa egin egingo du, baina ez helduaren aurrean, eta, zorteko bada, tira, hurrengoan batek daki, eta bitartean egindako ahaleginak eta hartutako arriskuak merezi izan dute. Konformismoaren kasuan, betiko obeditzeko erabakiarekin dator, eta betiko besteen menpe egongo da, baina lasai. Eta azkenik, matxinada aurreko erabakia birplanteatzen denean sortzen da: aingeru izateaz nekatuta edo aspertuta, deabrua izatea erabakitzen duenean.

Ondorioak, aldiz, askozaz ere kezagarriagoak dira lehen haurtzaroran, urte biko gela barne; zeren, pertsonaltatearen muinaren eraikuntzan ari da haurra, eta laguntza guztia behar du horretan, baina laguntza bada. Ez kaltea, beste itxura bat emanda. Zer egin behar da urte biko gelan, talde osoak batera zerbait egin behar duenean eta baten batek behar den bezala parte hartzen ez

badu, eta irakasleak izan dezakeen helburua oztopatzen badu? Lehenengo eta behin, era horretako jarduerak ikasurte hasieran gutxitu egingo dira, eta, aurrera joan ahala, gehiago proposatuko dira; zeren, alde aurretik talde-entzua jorratu behar da, eta horrek bakar-kako hasiera eta oso lan fina eta sendoa eskatzen ditu. Bigarrenez, umeak gonbidatu egingo dira, edo haien interesei segika lan egingo da. Nahita datorrena askoz hobeto portatzen da, inolako interesik ez duena baino. Hirugarrenez, jarduera laburretatik hasi behar da, hasi orduko inor ez nekatzeko. Laugarrenez, ez da ahalegin berezirik egingo interesari eusteko. Gezurretako emaitza da, benetan haurri garatzen laguntzen ez diona. Itxura emango du. Ez besterik. Bosgarrenez, norbaitek adia galtzen duenean edo beste zerbaitetan hasten denean, mesedez aldentzeko eskatuko zaio, eta haren intereseko norabait zuzentzeko eskatuko zaio, zeren, ari den horretan, beste era batera egon edo egin beharko du; baina berriro ere jarraitu nahi duenean, itzuli daitekeela azalduko zaio beti. Baldintzak betetzen jakitea oso hezkuntza-eduki garrantzitsua da, bai eta betetzen ez direnean mundua ez dela amaitzen jakinaraztea ere. Seigarrenez, jardueraren baldintzak urte bikoentzat egokituko dira. Ez zaio ezer aurreratu behar, ikas-teko prest ez badago, ez du ikasiko eta. Errepikapen zentzugabea ez da ikaske-ta mamitsua, gure eskoletan etengabe irakasten bada ere. Zazpigarrenez, autonomia bideratzeko, astiro eta zuhur lan egingo da. Denbora asko behar da, eta aurreko guztia pikutara bidal dezake horrelako zigor batek.

Azkenik, benetako galdera, maisu-maistra bakoitzak bere baitan erantzun beharko liokeena, zera da: zer irakasten dio pentsalekuak umeari? Zertan laguntzen dio? Eta ni profesional egoki-goa egiten nau? Pertsona edota ikasle hobe izateko balio badu, aurrera. Bestela, zertarako galdu alferrik denbora?, zertarako galdu alferrik haurtzarora eta ume bakoitza? ●

argitalpenak



Mundua baloi batean

Patxi Zubizarreta / Elena Odriozola
ELKAR

Haur eta Gazte Literaturako Mikel Zarate saria jaso zuen liburu honek. Nikolasek Kepari gola sartu nahi dio, hark “kakanarru” deitzen baitio. Baina gol mundial hori sartu nahian atzeraka ibiltzen hasiko da, eta joan eta joan, beti atzera, Nikolasek oso bidaia luzea eta arriskutsua egingo du. Eskerrak hiru lagun bitxi ondoan dituen bere babeserako! •



Itsasoa edan dut

Leire Bilbao / Enrique Morente
IBAIZABAL

Nola jakin nolakoa den zerbait probatu gabe? Maddik ez zekien zer aurkituko zuen itsas hondooan, beldur apur bat ere ematen zion... baina jakin al daiteke nolakoa den zerbait probatu gabe? Lehen irakurketetan modu autonomoan irakurtzen hasteko ipuinak dira. Egileen eta ilustratzaileen konbinazioak bilduma aberasten du, estilo ugari eta istorio bereziak eskainiz. •



Amalia eta Amelia

Castillo Suarez / Eider Eibar
DENONARTEAN

Elurra mara-mara ari zuen gau luze baten erdian, lera gorri bat iritsi zen ospitale baten atarira. Handik gutxira, bi neskatiko jaio ziren. Txikiak berdinberdinak zirenez, gurasoek Amalia eta Amelia deitzea erabaki zuten. Lehendabizikoari Amalia jarri zioten izena, eta bigarrenari Amelia, “a” beti esaten dugulako “e” baino lehenago: a, e, i, o, u. •



Orkestra lurtarra

Harkaitz Cano / Jokin Mitxelena
ELKAR

Manuk orkestra bat osatu nahi du eta berarekin joko duten musikarien bila abiatuko da. Taldekide xebeak biltzen doan heinean, abenturak ugarituko dira. Haur eta Gazte Literaturako Euskadi Saria jaso du liburu honek, epaimahaiaren iritziz, “maisutasun eta eraginkortasunez erabiltzen ditu baliabide linguistiko eta literarioak”. •



Gauko entziklopedia koxkorra

2princesesbarbudes
GAZTELUPEKO HOTSAK

Enciclopedia baixeta de la nit katalanezko disko-album ilustratuaren euskararako egokitzapena da eta Maialen Lujanbioren kantu bat dakar. 2princesesbarbudes taldeak ondutako abestiek gauko kontuak dituzte hizpide eta pilarik gabeko jostailu-tresnekin eginitako musika dute, pop estetika minimalistarekin. •



Biribil: haur kantu eta erhi jokoak

J. Aguerre-Valencia / Philippe Albor
IKAS

Haurrentzako kanten eta jolasen bildumak osatzen du, bereziki hizkuntzaren lantzeko sortutako CD-liburu hau. Testuak eta irudiak Josiane Aguerre-Valenciak egin ditu; musika, berriz, Philippe Alborrek sortu du. CDak estilo aberatsa du eta erritmo lasai eta biziak aldizkatzen ditu. Haurrock taldeko 17 hurrek ere parte hartu dute diskoan. •

hik hasi-ren proposamena

'ITSASPEKO BIHOTZAK' HAUR LITERATURA ETA HEZKIDETZA ARETOA

Begiekin entzun, bihotzarekin ikusi

Galtzagorri Elkarteak 'Itsaspeko bihotzak' areto literario ibiltaria pres-tatu du. Euskarazko haur literatura oinarri hartuta eta ibilbide pedagogi-ko baten bidez, emozioak, elkartasu-na eta genero berdintasuna lantzea du helburu.

Itsasargi batek egiten die ongi-to-rria haurrei *Itsaspeko bihotzak* areto-an. Itsaspean sartuko dira haurrak bi-daia berezi-berezi bat egiteko, urpe-kariak edo arrainak bailiran. Emozio-etan barrena egingo dute bidaia bat, genero berdintasuna eta elkartasuna helburu.

Literatura, jolasa eta artearekin, gozamenetik, genero berdintasune-an hezteko proposamen pedagogiko bat da Aitziber Alonsok, Mireia Del-gadok eta Miren Guillok Galtzagorri-ekin diseinatu eta zuzendu duten areto literario hau. Urteak daramatza Galtzagorri-ekin areto literarioak egiten Itziar Zubizarretak sortutako ereduaren ildotik. Egunero-egunero, ipui-nen bidez nahiz publizitatetik, jostai-luen bidez, gizarteko balioetan, espa-zioen antolaketan, kiroletan, etaba-rretan haurrek jasotzen dituzten me-zu sexisten artean, bada, uharte pare-kide bat da Haur eta Gazte Literatura Elkarteak eskaintzen duena. Izan ere, Galtzagorri-ekin dioten eran, haur eta gazte literaturaren esparruan, neska eta mutilen estereotipoz blai ikusten dira egunero-egunero argitaratzen



diren material asko: “Sexismoa beste garai batzuetako mamua dela uste dutenek gaur egun ekoizten diren lan berriak behatzea besterik ez dute ohartzeko, nola neska eta mutilentzako bide desberdinak planteatzen eta bultzatzen diren ipuin, alegia zein narrazioetan”.

Mundu sinboliko propio bat sortzen ari diren haurrengan eragin handia dute ipuinek eta horrexegatik baliatu du Galtzagorri-ekin literatura, irudi, mezu, lengoia, pertsonai eta emozioen bitartez sexu-genero bereizkeria txertaturik ez duten eredu bat proposatuz.

Hezkidetza ardatz duen ibilbide pedagogiko honek, haur literatura du

helduleku eta irudi parekideak eta, txokorik txoko, sexismorik gabeko egoerak aurkezten dizkie hezitzaileak, arreta eta errespetu handiz haurrei, umeen irudimenean erreflexio txiki batzuk piztuz eta galdera berriak eginaraziz euren buruari. Horretarako, haur eta gazteentzat publikatu diren liburuen artean oinarri pedagogiko hezkidetzailleak dituzten liburuak hautatu dituzte Galtzagorri-ekin hezitzaileek. Hala bada, aretoko txoko bakoitzean liburu batean edo batzuetan oinarriturik hezkidetzarekin lotura zuzena duen gai bat jorratzen dute.

Lehen geldialdian urpekariak izango dituzte zain haurrek. Adela Turin idazlearen *Arrosa eta leuna* al-

bum ilustratua ezagutu ahal izango dute bertan haurrek, eta ondoren, jolasaren bidez, hainbat arau zalantzan jartzeko parada izango dute urpekariekin.

Izan nahi duten hori izatea proposatuko die Lanbideen txokoak. Bertan Arantxa Iturbek idatzi eta Elena Odriozolak ilustraturiko *Norak subiltzailea izan nahi du* ezagutuko dute. Hurrengoan, ogibideetatik etxeko lanetara pasako dira haurrak: urpekarrien sukaldera. Txukun-txukun dago etxea, norbaitek jaso, bakarren batek jana prestatua... bere kabuz egina dirudien lan hori errekonozimendua aitortzen dio txoko horrek eta ardurak elkarrekin partekatzea proposatzen.

Areto guztian zehar emozioetatik barneratzen dituzte haurrek eredu parekideak, eta ez ideietatik. Baina bada txoko berezi bat emozioei izena jartzeko parada eskaintzen diena: *Urazpian sentituz* izeneko gela. *Txi-meleta belarriak* (Luisa Aguilar / Fernando Rey), *Ariketa fisikoa* (Rose Impy / Iñaki Zubeldia), *Kezkamuxelak* (Anthony Browne / Koldo Izagurre) narrazioekin. Sabelean, bihotzean edota eztarrian sentitu izan dituzten korapilo horiei buruz hitz egiteko aukera dute bertan haurrek, giro intimobatean.

Irlara iritsi aurretik, itsaspeko zinemaren geldituko dira bidaiariak. Bertan, nor bere maitasun-pelikulak asmatu ahal izango ditu, lagun arteko maitasuna, bikote harremanetako maitasuna, maitasun zabala eta errespetuzkoa aurkeztuz.

Ibilbidearen bukaeran, irlaren bihotzean, altxorra aurkituko dute haurrek: liburu hezkidetzazilez beteriko kutxa. Mimo eta arreta handiz aukeraturiko liburuekin gozatu ahal izango dute haurrek bertan.

Bidaia, alabaina, ez da aretoan bukatzen. *Itsaspeko bihotzak* proiektuak luzapena proposatzen die eskolei nahiz bertaratzen diren zaintzaile, guraso nahiz bestelako helduei, bibliografia hezkidetzazile hautatua ematen baitiete, eskolan nahiz etxean gozaten eta lantzen jarraitzeko.



Itsaspeko bihotzak

Haur literatura eta hezkidetzazile aretoa

- **Idea eta diseinua:** Aitziber Alonso, Mireia Delgado, Miren Guillo
- **Kudeatzailea:** Galtzagorri Haur eta Gazte Literatura Elkarte
- **www.galtzagorri.org**
- **943 47 14 87**
- **galtzagorri@galtzagorri.org**

8 eta 11 urte bitarteko haurtaldeentzat pentsaturik, irlara iristeko bost gunetan atonduriko ibilbide literarioa liburutegi nahiz aretoetara egokitzeko prestatu dago. Gune bakoitza, aretoko hezitzailearen gidaritzapean, gai bat jorratzeko pentsatua dago. Tarteka eta eskariaren arabera, guraso eta hezitzaileentzako saioak eskaintzen dituzte.

Zer gara gu?

Genero rola, identitateak eta gorputzak landuko dituzte aretoko hezitzailearekin. Hurrei neska eta mutil izatearen ideia estankorearen aurrean proposamen irekiagoak aurkeztuko dizkiete bertan.

Lanbideen txokoa

Haurrek telesailetan, marrazki bizidunetan etabarretan jasotzen dituzten lanbide estereotipatuak gainditzeko aukera dute bertan.

Mundua eraikitzen

Hezitzaileak ipuinaz gain asma-

kizunak baliatuko ditu etxeko lanen, zaintzaren eta familiaren inguruan hausnartzeko. Lan horiek duten garrantzia aitortu nahi zaie, bate-tik, eta bestetik, denen ardura dela ulertarazi nahi da.

Urazpian sentituz

Emozioen heziketa hezkidetzazile ikuspegitik jorratzea proposatzen du txoko honek, emozioek sexu-genero estereotipoen aldetik duten karga handia baita.

Anemonak eta harremanak

Bestelako harremanak eraikitzearen garrantziaz dihardute txoko honetan, elkartasun harremanetatik maitasun erromantikoaren mitoa hautsiz.

Irla

Ikuspegi hezkidetzaziletik haurrentzat, hezitzaileentzat eta senideentzat interesgarriak diren liburuak arreta handiz aukeraturik daude altxorren kutxan.





Koikili LERTXUNDI

FUTBOLARIA

Sarri euskara soilik eskolako hizkuntza ote den galdetzen diot nire buruari. Egia esan txikitatik etengabe izan dudana kezka edo duda izan da, agian gure etxean zoritxarrez gurasoek ez zekitelako euskaraz eta gure lehen kontaktua euskararekin eskolan izan nuelako. Kaleak ere horretan laguntzen zigun arren, Otxandio zorionez euskaraz bizi delako eta gainera dialektozinez berezia eta ederra duelako, oro har kalean ere gaztelerara igarotzeko joera izaten genuen.

Dena den, gogoan dut ere maiz eskolara behartuta joaten ginela eta horrek batzuetan erresistentziak eta kon-

Euskara, eskolako hizkuntza soilik?

trako jarrerak izatera eramaten gintuela. Testuinguru honetan, azpimarratzekoa da euskara bera modu natural batean erabiltzeko ez zegoela joko-araurik egokiena. Izan ere, gure buruari zera esaten genion: “Buf eskolara derrigorrez etorri behar eta gainera bertan euskaraz egitera behartzen gaituzte”. Berrez, umekeri bat dirudiena, zoritxarrez sakoneko arazo batean bilakatzen ari da belaunaldiz belaunaldi. Hots, euskara eskolako hizkuntza bihurtu dela eta derrigortasunarekin lotzen ari dela. Ondorioz, euskararekiko konnotazio negatiboa agerikoa da, kontra egiten zaio jarrera erreboltari bati erantzunez (oso ohikoa gazteen artean).

Egoera hau ikusirik, hezkuntza esparruan badago zer egin, badago zer pentsatu eta hausnartu, badago bide eta tresna berriak asmatzeko beharra. Halere, ezin dezakegu hezitzaileengan ardura guztia utzi, herritarren partetik arduragabekeria handia izango bailitzateke. Denon ardura da euskara es-

kolatik atera eta gizarte esparru ezberdinetan normalkuntzaren bidean jartzea: etxean, lagunekin, tabernetan, kirol guneetan ...

Zentzu honetan, euskara eskolatik at lantzeko aukera handiak daudela ohartu behar gara. Izan ere, aurretik aipatutako esparruetan bai gu eta bai umeez ez dugu “derrigorrez” parte hartzen eta hau errealitatea izanik, askoz errazagoa izango da euskararen erabilerara modu naturalagoan garatzea. Zergatik? Gure aisialdi uneak direlako eta hortaz gozamenarekin lotzen ditugulako une horiek, hau da, nahia eta gogoa-rekin. Ondorioz, alde zuzeneko jarrera baikorrak ditugu eta jakina denez gogoa dagoenean, edozer erronka lortu gogoa bihurtzen da.

Beraz, eskolak “derrigortasunaren bidetik” lortu duena ikusirik (ez da gutxi!), ez gara gainontzeko herritarrok kapaz izango gure gozamen esparruetan euskara normaltasunez erabiltzeko?

“Herri txikietako eskolak herriaren bizkarrezurra dira. Hotsak, soinuak... Herri bizi bat dago eskolarekin. Han dabilta egunean bitan baino gehiagotan bueltaka gurasoak, eta, haien liskarrak eta halakoak izan arren, jendearen harremana askoz ere estuagoa da”

Antton Beloki



20. ikasturtean harpidetzen direnentzako **OPARIAK**



hik hasi
harpidetuta



**Sarrionandiaren
ipuin laburren
liburua**



Hazi Hezi
harpidetuta



**69 abesti
jotasteko
CDa**



+



+



www.hikhasi.eus/harpidetza



ALBOAN



51 ERREZETA IRAKASLEENTZAT.

NOLA KOZINATU BOLUNTARIO-TALDE BAT HIRE ESKOLAN.

Materiala lortzeko moduak:

- *Gure web gunean eskatuz: www.educacion.alboan.org.
 - *Posta elektronikoaren bidez: educacion@alboan.org
 - *Ditugun egoitzetara hurbilduz: Bilbo, Donostia, Gasteiz edo Iruñea.
 - *Telefonoz eskatuz: 94 415 11 35.
- *Gure web gunean dagoenez, handik ere jaitsi liteke materiala.

Hezitzaileentzako, irakasleentzako eta begiraleentzako materiala da.

Materialaren prezioa: **10 euro.**

www.alboan.org



ERREPENBAND
LANKIDETZAREN
ERAKUL AGENTZIA

AGENCIA VASCA DE
COOPERACION PARA
EL DESARROLLO



ALBOAN

Jesutek bultzaturako Fundazioa



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO